TOKIKOM

# aikor!

txorierriko aldizkaria

2011ko maiatza | 104. zenbakia

Josu Camara

# Antzerkiaren indarrak metatuz

CHEIKO HATA ZAMUDIO ETA SONDIKAKO JAIAK LITERATURIA TXORIERRI ELKARTEA

# bildutxorierri

## Zorionak eta eskerrik asko, Txorierri!




Hau hasiera baino ez da, zure **laguntzarekin** Txorierri berria eraikiko dogu

bildu

aikor! Txorierriko aldizkaria

**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Gabriel Exebarria, Eder Merino, Iratxe Aiarza, Mª Carmen Noya, Juanjo Fernández Imaz, Zamudioko Udala, Juanjo Ortiz, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Etxeraino

**Maketatzailea:** Gaizka Eguskiza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 6.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

diruz lagundutako aldizkaria

12 Cheiko Hata, euskalduna

25 Sondikako jaiak

34 Txorierri txirrindularitza elkartea

**4** Eritxia
**5** Gutuna
**6** Laburrak eta albisteak
**12** Gurean izan da... Cheiko Hata, euskalduna
**14** Gaztea eta... Nerea Uriarte, ibiltaria
**16** Zamudioko Pazko jaiak
**20** Josu Camara, antzerkigilea
**24** Sormen topaketak
**25** Sondikako jaiak
**28** Indarkeria prebenituz
**30** Baserri Antzokia
**31** Transmisio kanpaina
**32** Literaturia
**34** Elkarteak... Txorierri txirrindularitza elkartea
**36** Txorierri ezagutu... Leginatik paseoa
**39** Aikorrizketan... Limonerak
**40** Sukaldaritza
**41** Denborapasa
**42** Agenda

• Paketeria zerbitzua • Buzoneaketak • Kartel ipinketak • Marketin zuzena • Publizitate banaketa •

TIPS@ ZAMUDION
Torrelarragoiti ind., P-7 B, 1. pab.
Tel.: 944-525 086
Fax.: 944-525 088
sondika@tip-sa.com

bidera banaketa

bai euskararen

✆ 670-93 97 86
banaketa@bidera.eu

DONOSTIA • BILBO • ANDOAIN • IRUN • ZAMUDIO
www.bidera.eu/banaketa

AIKOR! 104 I 2011ko maiatza
www.aikor.com

# Toponimoak erabili?

**GABRIEL ETXEBARRIA**
*(Lagatzu euskera alkartearen presidentea)*

Toponimo berbea grekotik dator: *tópos* = tokia edo lekua; eta *ónoma* = izena. Toponimoa lekuko edo tokiko izen berezia da, antxinarik datorren izena. Eta gure herrietan ez dago bazterrik izen berezia ez dauanik; hau da, leku edo toki guztiek euren izena daukie. Baserrian jaio eta hazi garenok normaltasun osoz erabili doguz, betidanik, soloen, basoen eta abarrekoen izenak. Toponimiaren gaineko ikerketak be egin dira Txorierriko herri batzuetan, eta ikerketotan herriko soloen, basoen, erreken, bideen, bidekurutzeen... izenak batu dira. Holan, bada, herrian zer edo zer barria egiten danean (kalea, bidea, errotondea...) badaukagu izena, hari ipinteko. Baina ez! Eraikin barriak beste inguru batzuetatik ekarritako izenakaz bateatzen dira sarritan.

Horren adibide ugari dagoz Txorierrin, esate baterako, kaleen eta bideen izenei jagokenez: Gorbeia, Kolitxa, Urkiola, Aizkorri, Urbasa, Ereaga, Kanala, Laida eta abar. Izen horreek Euskal Herriko izenak dirala esango dau baten batek; ba, bai, baina ez Txorierrikoak. Halanda be, aitatutako adibidea ez da orokorra Txorierrin, izan be badago herriren bat kaleei eta bideei betiko izenak ipini deutsezana. Hau da, izen toponimoez jantzita dagoana.

Bestalde, ez gagoz harro gure euskereagaz, antza. Eta euskera batutik ateratako izenak ipini deutseguz kale batzuei: Elaia kalearen ordez, Enara kalea; Txindorra kalearen ordez, Txantxangorri kalea... Eta nahaste-borraste horren barruan, batzuek –eta, ez hain zuzen be, bertokoek- atoan ipini deutsee izena toki batzuei. Zelan? Ba, adibidez, hor dagoan fabrika baten izena hartuz. Ganera, izen barri horreek arrakastatsu bihurtu dira sarritan. Adibide batzuk Zamudion doguz: "Cruce de cartonajes", Gusurratxe ordez; "Ralpe", Bidegane ordez; edo "Subiñas", Kantaraburu ordez. Adibide gehiago egon badagoz, baina ez doguz guztiak aitatuko.

Gure gurasoek eta gurasoen gurasoek itxi deuskuen aberastasuna ez dakigu erabilten behar litzateken moduan, antza. Horregaitik, Toponimiaren gaineko ikerketak ez dira armairuko kutxa baten gordeta izateko; erabili behar dira. Herritarrok errebindikau behar dogu erabili daitezala guk beti erabili izan doguzan izenak; geure izenak. Ez dogu zertan beste leku batetik ekarri, berton ugari daukaguz-eta. Hau guztia gure kulturako zatia da, eta geure ardurea horri eustea da.

# Himalaya antzezleku

Zortzi mila metro baino gehiagoko mendietan aritzeak indar fisiko eta psikiko itzela eskatzen duela badakigu. Edurne Pasabanek ere badaki zer den hori, eta orain dela gutxi espedizio berri bat hasi du beste zortzimilako bat garaitzeko. Oraingo honetan Everest du lanerako. Dena oxigeno barik, ez da lan makala izango! Komunikabideek "ibilaldi" berezi horretarako erabiliko dituen bizigaiak eta laguntza eman dute ezagutzera. Zamaketariak, hainbat sherpa, laguntzaileak, sukaldari pertsonala eta guztia grabatuko duen telebista ere bai. Hori gutxi ez balitz, ahuleriaz ez hiltzeko, kokotxak, jabugo pernila eta bakailaoa izango ditu lagun. Gutxi barru alfonbra gorria eta flashak behar izango dituzte mendiaren gailurrera heltzeko!

**EDER MERINO**
*(Kazetaria)*

Mendiaren benetako esentzia hiltzen doa apurka-apurka. Atzean geratu dira Reinhold Messner bezalako mendizaleak, soilik bere gorputzaz baliatzen zirenak. Orain mendiaren izaera galdu egin da, eta antzezlan bihurtzen da gure etxeko sofan aho zabalik geratzen garen bitartean. Bidea izaten da nekeza eta traketsa, ez gailurrean argazkia ateratzea. Kontuz, martxa honetan jarraituz gero, flashek betiko itsutuko gaituzte-eta.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

# Zutabe izatearen inportantzia

Etxean neu naiz zutabe, eta lotsa barik esaten dut. Batzuetan, badirudi plastilinaz eginda nagoela, baina beharrezkoa denean, harri bihurtzen naiz. Bikote-lagunak ere, ni aguantatzeko, zutabe bihurtu baino beste erremediorik ez du sarritan; bestela, akabo. Amumak, zuek bai zutabe sendoak (barkatu aitite guztiak, baina gaurkoan protagonismorik ez). Burutik jota nagoela pentsatuko duzue, baina zuotariko askok (txorierritarrok) ezagutzen duzuen Hori Baiko "erdiko zutabe" horrek moskeatuta nauka aspaldian; benetan diot, zutabe honek sentimenduen tsunamia, nahasketa sortarazten dit. Ikuskizunen bat dagoenean, hor dago, beti erdi-erdian, presente. Tortikolisaren aliatuak, erasotzeko prest.

Eskerrak zuri, lagun, bizitza betetzen duten gauza txiki horiek begi onez ikusteko tresna eman didazula. Eta zuri esker banoa, pitika-pitika ikasten. Ikasi dut erdiko zutabe hori Katalunian famatuak diren Castell horietako baten antzera ikusten, Hori Baitik pasatu den belaunaldi bakoitza giza-monumentu horiek osatzen duten maila baten moduan ikusten. Amaiera gabeko Casttella, espero dut. Hor daude gazteak, hurrengoa noiz igoko zain. Batzuetan jausteko zorian, beste batzuetan hortxe sendo, harro herriari begira. Baina etengabe lanean, gure herriaren nortasunaren parte izaten.

Eta bitartean zutik dirau!

*Maripi Agirre*

# Aste Santuko nire bidaia

Apirilaren 15ean, barikuan, pozpozik hartu nituen oporrak, hurrengo bi asteetarako egitasmoak buruan bueltaka nituela. Apirilaren 17an, Kantabria aldera joango ginen, apur bat deskonektatzera, eta han egun pare bat emango genuen; eta gero Galiziara, beste bost egun... Baina oporrak Kantabrian amaitu ziren. Igande gauean, buruko isuria eduki nuen, oporrak bukatuta zeudela adierazi zidana. Lehenengo eta behin, anbulatorio batera joan ginen, eta handik ospitale txiki batera. Gero, Gurutzetan ospitaleratu nintzen, lasaigarria hartuta eta konorte barik. Loaldi ederrean, ezertaz enteratu gabe, hamalau egunean egon ondoren, begiak ireki, eta hasi nintzen gertatutakoaz jabetzen.

Ez zen egoera erraza, eta ametsetak buruan nituen bueltaka. Hiruzpalau egun eman nuen gela arrunt batean, puzzlea osatu ezinik; gero, etxera. Oraindik ez naiz errehabilitazioarekin hasi, itxarote zerrendak oso luzeak omen direlako. Baina, pixkanaka-pixkanaka baino ez bada ere, mugimendu guztiak egiteko gauza naiz. Ibiltzeko ere apur bat astun nago. Gauez, lo egin ezinik eta ohean aratinik, gauza askotan pentsatzen dut... Isuria eduki nuenean, txarrena pentsatu nuen hasieran. Eta fededun kristaua naizenez, Jainkoari errezatu nion, luzapen bat eskatuz. Eta badirudi eman egin didala.

Badakit emazteak, seme-alabok, senideok eta lagunok oso txarto pasatu duzuela, baina hemen nago berriro: lehengoa bera. Nirekin gogoratu eta nitaz arduratu zaretenoi, eta zeuen otoitzetan gogoan izan nauzuen guztioi ere, mila esker! Bizitza hari ahul bat baino ez da, eta nik hari horretatik egin dut joan-etorria. Ea luzaro irauten duen beste bidaia bat egin gabe.

*Jabier Lekerika*

## Sendabelarren gaineko ikastaroa

Tximintx Derioko euskara elkarteak, Berbalagun taldeak eta Altzora Sondikako euskara elkarteak "Usadioak eta belarrak" ikastaroa antolatu dute ekainaren 12rako. Ikastaroa Gorka Menendezek emango du. Goizeko 10etan hitzalditxo bat egingo da Txepetxa Derioko AEK euskaltegian eta ondoren, belar bila aterako dira herriaren ingurutik. Sendabelarrak ez ezik, jatekoak ere hartuko dituzte. Eta astirik izanez gero, plaste bat zelan egiten den azalduko da. Eguerdian barbakoa egingo dute. Informazio gehiagorako, 635 37 35 95 telefono zenbakira deitu behar da.

## Memoria Historikoari lotutako ekimenak

Lezama Bizirik elkarteak ekimen bi antolatu ditu ekainerako. Ekimenak Memoria Historikoari daude lotuta, izan ere, 74 urte bete dira Francoren armadak Burdinazko Gerrikoa suntsitu zuenetik. Ekainaren 8an Pako Etxebarriak hitzaldia eskainiko du. Hitzaldia arratsaldeko 7,30ean izango da Uribarri Topalekuan. Bestalde, ekainaren 11n txangoa egingo dute Gaztelumendira eta han Burdinazko Gerrikoren hondakinak bisitatuko dituzte. Taldea goizeko 10etan bilduko da herriko plazan. Lezama Bizirik elkarteak laguntza jaso du eskolako Gurasoen Elkartetik ekimenak antolatzeko.

# Txorierriko futbolaren jaia

*a: Aiol*

Futbol entrenatzaile euskaldunen Txorierriko eskola aurten jarri da martxan eta, ikasturteari amaiera emateko, jaia antolatu zen apirilaren 28an. Ekitaldia Derion izan zen, Txorierri Politeknika Ikastegian. "Futbola Oinarritik euskaraz" I. Jaialdia arratsaldeko 6etan hasi zen eta eskolan parte hartu duten talde gazteek (Arteaga futbol eskola, Zamudio SD, Sondika CD, Lauro ikastola eta Derio CD) iraupen gutxiko partidak jokatu zituzten. Bitartean, Haritz Gallastegi kazetariak eta Koikili Lertxundi Athleticeko jokalariak euskaraz komentatu zituzten partidatxoak, telebistako emanaldia izango balitz moduan. Geroago, sariak banatu ziren talde eta entrenatzaileen artean eta, azkenik, kopauaz gozatzeko aukera izan zuten bertan bildutakoek.

Ekimena hauexek sustatu dute: Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak (Totoan), Itzarri aholkularitza enpresak, Txorierriko Mankomunitateak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Ekitaldian jendetza batu zen, eta pozik agertu ziren antolatzaileak horregatik. Pedro Mari Goikoetxea kazetari lezamarra aurkezle ibili zen, eta jokalari, entrenatzaile eta Txorierriko klubeko ordezkariez gain, Athleticeko zenbait jokalari eta jokalari ohi ere egon ziren ekitaldian, besteak beste José Angel Iribar, Gorka Iraizoz, Ander Iturraspe, Igor Gabilondo, Ibai Gómez, Iraia Iturregi eta Aitziber Juaristi "Tzibi". Jokalariei oroigarri bana eman zitzaien, euskara bultzatzeko egiten duten lanagatik.

LOTERIA LEZAMA
BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK
GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,
TABERNENTZAT, ETAB
ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87

LEJARRENE JATETXEA
Garaieltza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Club Hípico Aretxalde
Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animaliaren heziketa
Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

On egin kafetegia
Hanburgesak – otartekoak – sartenekoak
plater konbinatuak – gosariak 7etatik aurrera
pastelak enkarguz
etxera eramateko zerbitzua
Aretxalde auzoa, 48-behea
48196 Lezama
94 455 63 94

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Goitioltza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

GOIKO TABERNA
Taberna-jatetxea
Emiliano
Menu berezlak asteburuetan • Eguneko menua eta karta
Etxera eramateko platerak • Jaunartzeak eta eskontzak
Itunkia asteburuetan • Jantoki zabalak
B.º Garaieltza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

# Konponbidea, jantokien gatazkarako

Elizalde Zamudioko Gurasoen Elkartearen kideak eta haien seme-alabak ikastetxeko jolastokian batu ziren maiatzaren 17an, eta jantokien gatazkari konponbidea emateko eskatu zuten. Elkarrataratze-deia BIGE Bizkaiko gurasoen elkarteak egin zien lurralde gurasoen elkarte guztiei. "Gatazkan bitartekari aritzeko eskatzen diogu Eusko jaurlaritzari, eta arazoa ahalik eta lasterren konpon dezatela", esan zigun Susanak. Jaurlaritzak azpikontratatutako enpresetako langileek hiru aste daramatzate greban eta horrek hainbat eragozpen ekarri dizkie gurasoei. Hala ere, gatazka ez da berria; hura orain dela hiru urte hasi zen, eta oraindik ez dira akordio batera heldu.

Gurasoen Elkarteko kidea izateaz gainera, jantokiko langilea ere bada Susana, eta greban dago. Langileen errebindikazioen artean bereziki hauek azpimarratu ditu. "Urtean 18 lanordu gehiago eman zizkiguten, zerbitzua hobetzeko. Baina zentro bakoitzak nahi duen bezala erabiltzen ditu orduok. Hamazortzi ordu horiek arautzeko eskatzen dugu, eta umeen onura dakarten zerbitzuetan erabil daitezela". Era berean, langile guztiei zuzendutako prestakuntza unibertsala egotea ezinbestekotzat jo du. "Enpresa bakoitzak bere ikastaroa ematen die langileei. Guk eskatzen dugu sektoreari dagozkion gaietan –lehen sorospenak, janari-arazoak...– guztiok prestakuntza bera jasotzeko".

## Larrabetzufest, Garagardoaren Txorierriko jaialdia

Oktoberfest Garagardoaren Alemaniako Jaialdia ezaguna da mundu osoan, baina gurean ere garagardo-uholdea egongo da maiatzaren 28an. Jaialdia Larrabetzun egingo da eta tabernetako garagardo-txorrotak egun osoan zehar egongo dira zabalik. Larrabetzufest ekimena Patxi S.koop.-k eta Andra Mari kaleko tabernariek antolatu dute eta, azaldu digutenaren arabera, herria girotzea du helburu. Jaialdia iaz egin zuten lehenengo aldiz, proba moduan, eta arrakastatsua izan zenez, aurten ere erabaki dute egitea.

Kañen eta kañen artean, sorpresak ere egongo dira. Horrela, bezeroek Mahou markako kaña bat eskatzen duten bakoitzean zenbaki bat jasoko dute zozketa batean parte hartzeko. Irabazleak bi lagunentzako menu berezia, Azurmendi jatetxean, jasoko du saritzat. Era berean, gaueko 9etatik ordu batera arte eskaintza berezia egingo dute tabernek: kaña bat eta alemaniar saltxitxa, euro batean. Bestalde, trikipoteoa egongo da tabernarik taberna eta herriko bertsolariek saiotxoak eskainiko dituzte. Antolatzaileek autobusak jartzeko asmoa dute, txorierritarrak eta Mungiako lagunak Larrabetzuraino autoa hartu behar barik hurbil daitezen.

AIKOR! 104 I 2011ko maiatza
www.aikor.com

## San Tomás

Zamudion San Tomás jaiak ospatuko dituzte ekainean:

**Ekainaren 17an, barikuan**
18:00: Bolanderak.
20:00: Idi probak.
22:00: Saiheski jana, urdai tripapekoa eta sardinak.
22:30: Erromeria, Nakar taldearen eskutik.

**Ekainaren 18an, zapatuan**
16:00: XXII. Mus Txapelketa.
17:00: Umeentzako jolasak.
18:00: Tortilla Txapelketa.
21:00: Tortillak aurkeztea.
21:30: Sariak banatzea.
22:00: Diskodantza.
22:30: Antzinako jokoak eta Diskodantza DJa.

**Ekainaren 19an, domekan**
09:00: Zamudioko bost ermitetatik XVI. ibilaldia.
Bertoko taldeak goiza girotuko du.
Paella eta Sukalki Txapelketak.
13:00: Meza, San Tomas ermitan.
13:30: Paellak eta sukalkiak aurkeztea.
18:00: Euskal dantzen agerraldia, Hiru-bat taldearekin.
Ostean, lehiaketen sariak banatzea.
19:00: Trikileku taldearen emanaldia.

**Ekainaren 20an, astelehenean**
12:00: Meza, defuntuen oroimenez.

# Txapelketa solidarioa

*a: Uritarra*

Uritarra Larrabetzuko Futbol Eskolak Futbol 7ko Txapelketa Solidarioa antolatu du bigarren aldiz. Txapelketa ekainaren 11n, 12an eta 13an egingo dute. Partidak arratsaldean jokatuko dira, barikuan; eta goizean zein arratsaldean, zapatuan. Finalaurrekoa eta finala domeka goizean izango dira. Txapelketan Euskal Herritik etorritako taldeek ez ezik Estatukoek ere hartuko dute parte. Lehenengo fasean hauek arituko dira: Deustu, Santutxu, Danok Bat, Barakaldo, Santurtzi, Peña Athletic Galdames, Arteaga, Arratiako selekzioa, Ugeraga, Romo, Getxo eta Gernika. Eta bigarren fasean hauek ibiliko dira lehian: Atlético de Madrid, Athletic, Zaragoza, Villarreal, Eibar, Uritarra, Sporting de Gijón eta Baionako Aviron.

Bestalde, txosna bat egongo da hiru egunetan, eta han ogitartekoak eta edariak jarriko dira salgai. Horrezaz gainera, herri bazkaria egingo da zapatuan eta egun osoan zehar ere hainbat ekintza izango dira: aizkolariak, bertsolariak eta umeentzako tailerrak, tartean. Txapelketari esker batzen den dirua Gure Señeak Derioko elkarteari emango diote.

# Euskal dantzen hiriburua

*a: Jon Goikouria*

Erandio Goikoa Euskal Herriko dantzen hiriburu bihurtu zen maiatzaren 1ean. Izan ere, Euskal Herriko Dantzarien Eguna Arteaga futbol zelaian egin zen. Zazpi herrialdeetatik etorritako ehunka dantzariek euskal dantzarik adierazgarrienetarikoen erakustaldia eskaini zuten bertan, eta futbol zelaia kolorez, ohituraz eta erritmoz bete zuten. Eguraldi polita eduki genuen eta jendea animatu egin zen. Harmailak jendez gainezka egon ziren, eta antolatzaileak pozik azaldu ziren ikusleen erantzunarekin. Euren esanetan, aurtengo ekitaldia erabat arrakastatsua izan da. Dantzariek zein zaleek gozatu zuten ikuskizunaz.

# Kepa Zelaiarekin solasean

Altzora Sondikako euskara elkarteak hitzaldia antolatu zuen maiatzean. Hura Kepa Zelaia medikuak eman zuen. Zelaia Armstrong, Contador eta Somarriba bezalako txirrindulari ospetsuen medikua da. Medikuak txirrindulariek hartzen duten elikadura motari buruz hitz egin zien aretoan bildutakoei. Osasunari lotutako kontuak ere azaldu zizkien, eta txirrindulariak zelan prestatzen diren kontatu zuen. Medikua umore onez ibili zen eta oso hitzaldi dibertigarria eskaini zuen. Gainera, pazientzia handiz erantzun zituen galdera guztiak. Gustura egon ziren bera zein publikoa. Hain gustura, ezen hitzaldia nahiko luzatu baitzen, eta azkenean amaitutzat eman behar izan zuten. Baina Zelaia eta entzule batzuk taberna batean bildu, eta han jarraitu zuten txirrindularien kontuei buruz hitz egiten.

## Txakolinaren jaia

Ekainaren 5ean Txakolinaren Eguna izango da Lezaman, goizeko 11:00etatik aurrera. Orotara 40 saltoki ipiniko dira Hilario Astorki plazan eta inguruetan. Azokan Txorierriko zortzi txakolin-egileek hartuko dute parte eta haien saltokietan Bizkaiko Txakolinaren iazko ekoizpena dastatu ahalko da. Lau euroren truke txakolina edateko lau txartel eskuratuko dira. Azokaren kristalezko kopa ere jasoko da. Txakolinaz gainera, beste produktu tipiko batzuk ere jarriko dira salgai. Bestalde, Eusko Labeleko "Luma Gorri" oilasko errea egongo da eta pintxoak euro batean salduko dituzte. Umeei zuzendutako ekintzak ere antolatuko dira.

## Ercillak Zamudioko proba irabazi du

Zamudio Racing Elkarteak zortzigarren aldiz Slalom proba antolatu zuen. Maiatzaren 21ean, hain zuzen ere. Proban 25 gidarik hartu zuten parte, eta denborarik onena lortu zuena Iker Ercilla izan zen: 1´ eta 32´´. Bestalde, aipatu behar da Jon Zalloetxebarriak auto 0 gidatu zuela, proban parte hartu ez bazuen ere. Etxebarria rally munduan ospea hartzen dabilen Zornotzako gidari gaztea da. Proban ez zen gertaera larririk egon. Hala ere, Asier Solagurenen autoa irauli zen, eta gidariak proba utzi behar izan zuen. Lasterketaz gainera, lasterketarako autoen erakusketa ere egin zen.



AIKOR! 104 I 2011ko maiatza
www.aikor.com

# Bilduk alkatetza eskuratu du Larrabetzun; EAJk gainontzeko herrietan

Euskal Herrian bezala, Bildu indarrez sartu da Txorierriko udaletxeetan. Horrela, boto gehien jaso duen alderdia izan da Larrabetzun, eta bigarren alderdia da gainontzeko herri guztietan. Larrabetzun sei zinegotzi eskuratu ditu; Loiun, hiru; Sondikan, hiru; Derion, hiru; Zamudion, lau; eta Lezaman, bost. Bestalde, EAJk gainontzeko alkatetzak lortu ditu, hala ere, Derion izan ezik (zazpi zinegotzi), zinegotziak galdu ditu herri guztietan: Larrabetzun, bat (hiru zinegotzi, 2011n; eta lau, 2007an); Loiun, hiru (zazpi, 2011n; eta 10, 2007an); Sondikan, bi (sei, 2011n; zortzi, 2007an); Zamudion, bi (zazpi, 2011n; bederatzi, 2007an); eta Lezaman, bi (sei, 2011n; zortzi, 2007an).

*EBk zinegotzi guztiak galdu ditu Txorierrin*

PSOEk zinegotzi bat galdu du Derion (bi, 2011n; hiru, 2007an); beste bat, Lezaman (zero, 2011n; bat, 2007an); eta beste bat, Zamudion (zero, 2011n; bat 2007an). Sondikan zuen zinegotzia mantendu du. PPk Derion, Loiun eta Sondikan zuen zinegotzi bana mantendu du, eta EBk Larrabetzun, Lezaman eta Zamudion zuen zinegotzi bana galdu du. Abstentzioa % 32,26koa izan da Derion; % 17,84koa, Larrabetzun; % 26,87koa, Lezaman; % 28,65ekoa, Loiun; % 28,11koa, Sondikan; eta % 28,82koa, Zamudion.

Batzar Nagusiei dagokienez, EAJk 22 batzarkide lortu ditu Bizkaian; Bilduk, 12; PSEk; bederatzi; eta PPk, zortzi.

## DERIO

**ALKATEA**: Lander Aiarza

| Alderdiak | Zinegotziak | |
|---|---|---|
| | 2011 | 2007 |
| EAJ | 7 | 7 |
| BILDU | 3 | 1 (EAE) |
| PSOE-EE | 2 | 3 |
| PP | 1 | 1 |
| EA | 0 | 1 |
| EB | 0 | 0 |
| **Abstentzioa** | % 32,26 | % 36 |

## LARRABETZU

**ALKATEA**: Asun Gaztelu

| Alderdiak | Zinegotziak | |
|---|---|---|
| | 2011 | 2007 |
| EAJ | 3 | 4 |
| BILDU | 6 | 4 (EAE) |
| PSOE-EE | 0 | 0 |
| PP | 0 | 0 |
| EA | 0 | 0 |
| EB | 0 | 1 |
| **Abstentzioa** | % 17,84 | % 18,20 |

## LEZAMA

**ALKATEA**: Alaitz Etxeandia

| Alderdiak | Zinegotziak | |
|---|---|---|
| | 2011 | 2007 |
| EAJ | 6 | 8 |
| BILDU | 5 | - |
| PSOE-EE | 0 | 1 |
| PP | 0 | 0 |
| EA | 0 | 1 |
| EB | 0 | 1 |
| **Abstentzioa** | % 26,87 | % 33,56 |

## LOIU

**ALKATEA**: Vicente Arteagoitia

| Alderdiak | Zinegotziak | |
|---|---|---|
| | 2011 | 2007 |
| EAJ | 7 | 10 |
| BILDU | 3 | - |
| PSOE-EE | 0 | 0 |
| PP | 1 | 1 |
| EA | 0 | 0 |
| EB | 0 | 0 |
| **Abstentzioa** | % 28,65 | % 27,34 |

## SONDIKA

**ALKATEA**: Gorka Carro

| Alderdiak | Zinegotziak | |
|---|---|---|
| | 2011 | 2007 |
| EAJ | 6 | 8 |
| BILDU | 3 | - |
| PSOE-EE | 1 | 1 |
| PP | 1 | 1 |
| EA | 0 | 1 |
| EB | 0 | 0 |
| **Abstentzioa** | % 28,11 | % 31,30 |

## ZAMUDIO

**ALKATEA**: Igotz López

| Alderdiak | Zinegotziak | |
|---|---|---|
| | 2011 | 2007 |
| EAJ | 7 | 9 |
| BILDU | 4 | - |
| PSOE-EE | 0 | 1 |
| PP | 0 | 0 |
| EA | 0 | 0 |
| EB | 0 | 1 |
| **Abstentzioa** | % 28,82 | % 33,01 |

## Argia, iluntasunean

Derioko San Isidro jaiek hasiera eman diote jaien denboraldiari gurean. Maiatzetik azaroaren arte, Txorierriko herriak musikaz, kirolaz, ikuskizunez, lehiaketez, gastronomia ekitaldiz... beteko dira progresiboki, eta jai-giroak bailara osoa kutsatuko du. Suak herrietan antolatzen diren ekintzarik erakargarrienetarikoak dira, sortzen duten zaratagatik eta iluntasunean marrazten dituzten argi-formengatik. Argazki hau Sondikan atera zen orain dela urte bi.

Argazkia: Juan José Fernández Imaz
(DAT, Derioko Argazki Taldea)

Larrondoko Ikastetxea
ESPERANZA ALHAMA
Lanbide Heziketa

**Ate irekien jardunaldiak:** maiatz eta ekainaren astearteetan (17:00-19:00)
**Aurrez izena ematea:** ekainaren 1etik 10era
**Matrikulak:** uztailaren 4tik 12ra

*Heziketa zikloak: erdi mailakoa eta goi mailakoa*
Erdi mailakoa
*-Ekipo eta instalazio elektronikoak (2.000 ordu)*
*-Administrazio kudeaketa (1.300 ordu)*
*-Merkataritza (1.400 ordu)*
Goi mailakoa
*-Administrazioa eta finantzak (2.000 ordu)*
*-Sistema informatikoen administrazioa (2.000 ordu)*
*-Nazioarteko merkataritza (2.000 ordu)*

*LHIK (Lanbide Hastapenerako Ikastegia)*
*-Behe tentsioko instalazio elektroteknikoetarako langilea*
*-Elektromekanikoa*
*-Merkataritzako laguntzailea*
*-Bulegoko laguntzailea*

*INEMeko ikastaroak*

*Lanerako prestakuntzako ikastaroak*
*-Eusko Jaurlaritzak babestutako zentroa*

*Hobetuz*

*Larrondo 2 eta 4, LOIU (BIZKAIA) e-mail: ealhama1@sarenet.es - Informazioa: 94 471 01 51*

AIKOR! 104 | 2011ko maiatza
www.aikor.com

# "Gaztelania euskara be

t: Gaizka Eguskiza / a: Iratxe Aiarza

## CHEIKO HATA | japoniar euskalduna

Cheiko Hatak telebistan egiten zuen lan Japonian, baina euskaldun batekin maitemindu zen, eta duela 18 urte Euskal Herrira etorri ziren biak. Hatak bere herriari buruzko hitzaldia eman zuen Zamudiotorren, Lagatzu euskara elkartearen eskutik.

**Zer zenekien Zamudio edo Txorierriri buruz, hona etorri baino lehen?**

Aireportua zegoela, baina hona etorri naizenean, konturatu naiz oso inguru polita dela. Jonek, senarrak, ordea, nik baino lotura handiagoa du Txorierrirekin, ITP enpresan, Zamudion, itzultzaile ibili baitzen.

**Zure hitzaldia Japoniari buruzkoa izan da...**

Bai, denetarik hitz egin dut: lurrikara, kultura, bizimodua, ohiturak... Adibidez, japoniarrok ez ditugu ezezagunak agurtzen, ez diogu elkarri begiratzen, oso zorrotzak gara, eta beste era batean hitz egiten dugu aurrean dugun pertsonaren arabera: emaztea, laguna, umea.... Japoniarrak eta euskaldunak oso ezberdinak gara.

**Zer egiten du japoniar batek euskaraz ikasten?**

Orain ez nabil ikasten, baina lehen egunero-egunero joaten nintzen euskaltegira. Euskal Herrira etorri nintzenean, ez nuen ez gaztelaniaz, ez euskaraz egiten. Lehenik eta behin gaztelania ikasi nuen, eta gero euskara. Senarraren familia osoa euskalduna da, eta, ondorioz, erabaki nuen euskara ikastea. Eurekin hitz egiten izugarri ikasi dut. Ez dut amaitu, 9. mailan bainago. Hona etortzen naizen hurrengo batean, hobeto hitz egingo dut (kar, kar).

**Zergatik eta noiz erabaki zenuen Euskal Herrira etortzea?**

Senarrak bederatzi urte eman zuen Japonian eta nik bertan ezagutu nuen. Jonek gaztelania irakasle egiten zuen lan akademian, eta ni hara joaten nintzen thailandiera ikastera. Gero, duela 18 urte, senarra eta biok hona etorri ginen, bizimodu berri bat hasi nahi genuelako.

**Hizkuntza zaila omen da euskara erdaldunentzat. Zer iruditu zitzaizun zuri?**

# zain zaila iruditzen zait”

Jendeak esaten zuen euskara oso zaila zela. Baina niretzat gaztelania ere bada oso zaila. Nire ustez, biek dute zailtasun bera, japoniera, nire ama hizkuntza, erabat desberdina delako.

**Japoniera, gaztelania eta euskara menperatzen dituzu, baina beste hizkuntza batzuk ere ikasi dituzu...**

Bai, japoniera nire ama hizkuntza da, eta txikitan, eskolan, ingelesa ikasi nuen. Gero thailandiera ikasi nuen Japonian. Alemanera eta txinera apur bat ere badakit.

**Zer esan zizuten etxean, Japonian, hona etortzea erabaki zenuenean?**

Euskal Herria oso urrun dagoela uste dute. “Zergatik hain urrun?”, galdetzen zuten, baina birritan etorri dira eta gustatu zaie.

**Zelan bizi zara hemen, Euskal Herrian?**

Ondo. Arrasaten bizi naiz, herri txikia da. Japonian, aldiz, jende asko bizi da.

**Japonian aurkezle aritzen zinen telebistan, baina hemen enpresaria zara, GoiHata itzulpen zerbitzuaren sortzaileetako bat baitzara. Zelan aldaketa? Zelango enpresa da?**

Aldaketa? Ondo, baina oso handia izan da. Telebistan dena aldatzen da egun batetik bestera. GoiHata gure enpresari dagokionez, itzulpenak egiten ditugu, eta, batez ere, japoniera, gaztelania eta ingelesa jorratzen ditugu.

**Nolako jarrera du jendeak euskaraz hitz egiten ikusten eta entzuten dizunean?**

Ikusten nautenean ez dakite euskalduna naizela, noski. Eta euskaraz hasten naizenean, erabat harrituta gelditzen dira. Baina beti animatzen naute: aurrera jarraitzeko eta hitz egiteko esaten didate.

**Eta euskaldunok, zer jarrera dugu Japonia eta japonierari buruz?**

Lehen euskaldunok ez zenekiten ezer guri buruz, ezta nire herria non dagoen ere. Gaur egun, ordea, gero eta informazio gehiago dago, eta gehiago dakizue: esaterako, manga (komikiak) ezaguna da...

**Zaila da guretzat, euskaldunontzat, japoniera ikastea? Zergatik?**

Hitz egitea ez da zaila, baina idaztea eta irakurtzea, bai, ordea. Gauza asko gogoratu behar dira.

**Tamalgarria da zure herrian duela gutxi gertatutako lurrikara...**

Bai, oso tristea. Aste Santuan Japonian ibili nintzen. Eskerrak nire familia, behintzat, hegoaldean bizi den. Izan ere, hor lurrikarak ez du eraginik izan.

*“Japonian oso ezberdinak gara: zorrotzak gara, ez diogu elkarri begiratzen...”*

*“Duela 18 urte Euskal Herrira etorri nintzenean, ez nuen ez gaztelaniaz, ez euskaraz egiten”*

AIKOR! 104 I 2011ko maiatza
www.aikor.com

# "Eguneroko desafioak gustatzen zaizkit"

NEREA URIARTE I ibiltaria

Ikasketek, lanak eta aisialdiak munduko leku batetik bestera eraman dute Nerea: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Malaysia, Txina, Frantzia eta Italia, banaka batzuk aipatzearren. Sondikoztar honek 30 urte ditu eta ibiltari amorratua da. Maletan hainbat lekutan izandako esperientziak eta momentu onak ditu gordeta.

*t: Itxaso Marina / a: N.U.*

**Laburbildu, mesedez, zure lan ibilbidea.**

Zuzenbidea ikasi nuen eta, ondoren, Nazioarteko merkataritzako zuzenbidean espezializatu nintzen. Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Internazionalizazio beketariko bat lortu nuen eta hari esker Malaysian eta Txinan izan nintzen lanean. Orain dela gutxi arte Europan gizarte-proiektuak garatzen dituen enpresa batean aritu naiz, Bilbon.

**Eta udan turismo-gidari zabiltza Malaysiako bidaia-agentzia baterako.**

Malaysian urtebete eman nuen, lanean eta bizi izaten. Eta bidaiak egitea izugarri gustatzen zaidanez, hango bidaia-agentziekin kontaktuan jartzea erabaki nuen. Udan bidaiak antolatzeko hartu ninduten: nik lagun talde bat biltzen dut berton eta hara eramaten dut. Gureak ez ohiko bidaiak dira, abenturazkoak, Borneoko oihanetatik... Eremu babestuetara joaten gara, orangutanak eta tximino sudurluzeak ikusten ditugu, kanpadendetan egiten dugu lo...

**Zein lan mota nahiago duzu?**

Ezberdinak dira. Bertoko lanak lasaitasuna ematen dizu, baina gidaria izateak dibertigarriagoa da, beste asetasun mota bat dakarkizu. Urtero bidaia bera da, baina lagun ezberdinekin egiten duzunez, bidaia ezberdina bihurtzen da azkenean. Jendeak jakin-mina handia du herria bera eta hango kultura ezagutzeko, eta nik nire ezaupideak eta bizipenak helarazteko aukera dut. Eta eurekin bizipen berriak izateko... Oso gauza bitxiak gertatzen dira!

**Adibidez?**

Suge batekin topo egin eta beste norabide bat hartu behar izatea, edo tximino batek zure motxila lapurtzea, dutxatik ateratzen zarenean... Hori bai txerrikeria! Bestalde, landare batzuetara ezin zara hurbildu euria ari duenean, poroak irekitzen zaizkielako eta pozoia botatzen dutelako. Ondorioz, kontuz ibili behar duzu jendearekin.

**Zer da, lana edo gozamena?**

Iaz nire oporrak erabili behar izan nituen gidari lan egiteko. Eta hau ere lana izan arren, estresa kentzen dit niri. Aire zabalean zaudelako, txangoak egiten, naturarekin harreman estua izaten, basa bizitza ikusten...

**Zer da gehien gustatzen zaizuna Malaysiatik?**

Dena. Izan ere, irribarreak baino ez dituzu ikusten, hitz onak entzuten dituzu beti, eta ahal duten guztian laguntzen dizute... Biztanleriaren zatirik handiena malaysiarra bada ere, askok Txinan edo Indian dute jatorria. Bakoitzak bere kulturari, ohiturei eta erlijioari eusten die, baina harmonian bizi dira eta errespetu handia diote elkarri. Haiengandik zer ikasi badugu.

**Zelan hartzen dute atzerritarra?**

Oso pertsona irekiak dira. Malaysia garapen-bidean dagoen herrialdea da oraindik, eta dena da mundu bat eurentzat. Edozein gauza interesatzen zaigu guri buruz, eta futbolari esker badakite gu mapan kokatzen. "Athletic, Bilbao!", diote.

**Zelako ekarpena egiten dizu atzerrian bizi izateak?**

Atzerrian zaudenean, egunero gainditu behar duzu erronkaren bat: hizkuntza, kultura, bakartasuna... Eta erronka horiek gainditzeak asetasuna ematen dit; egunerokoa desafioak gustatzen zaizkit. Bertako hizkuntza hobeto ezagutzeko aukera ere

baduzu, eta hizkuntza hobeto menperatzen zoazen heinean, jende gehiago ezagutzen duzu, euren kultura, eta interakzio handiagoa lortzen duzu eurekin. Gainera, edozein lekutara zoazela, oso garrantzitsua da etxetik daramatzazun betaurrekoak kendu eta bertoko batzuk ipintzea. Aurreiritziak alde batera utzi, informazioa hartu eta besteengandik ikasi. Beste kultura, hezkuntza, erlijioa... dituzten lagunak ezagutzen dituzunean, pertsona irekiagoa bihurtzen zara.

**Zenbat hizkuntza dakizkizu?**

Gaztelera, ingelesa, frantsesa, italiera eta txinera. Zailena ikasten txinera izan zen, eta lehenago ahazten dena ere bada.

**Ezagutzen dituzun leku guztietatik, zein da onena bizi izateko?**

Noski, berton beste leku batzuetan ez dagoen bizi-kalitatea dugu. Baina denbora-tartea pasatzen denean, bidaiatzeko grina pizten zait berriro. Egia esan, egon naizen leku guztietan izan ditut esperientzia onak. Eta txarrak ere, baina nik onekin nahiago dut gelditu.

**Laster beste herrialde batera joateko asmoa duzula entzun dugu.**

Bai, aukera batzuk ditut, eta ikusiko dugu ea zer gertatzen den. Esperientzia berriak bizi izaten jarraitzeko gogoa dut, horiek aberastu egiten zaituztelako.

Eleizalde kafetegia
Lainomendi, 7 (Elizaren aurrean) 48160 DERIO Tel.: 94 454 52 88

ERREKA ONDO JATETXEA
Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak
Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)
SANTI MAMI ALBAITARITZA
Nerea Pedrosa Colg. 527
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Patxi KOOP. BANATZAILE OFIZIALA
Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
+ faxa: 94 452 25 87
patxiscoop@patxi.coop

GAMINIZ JATETXEA
Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41'' W 43°17'37''N
www.gaminiz.com

Garmendia ardoak
Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak
Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

AIKOR! 104 I 2011ko maiatza
www.aikor.com

# Berandu, baina garaiz

a: Zamudioko Udala

Pazko jaiei ekainaren 10ean emongo deutsee hasierea zamudioztarrek. Handik aurrera, musikaz, kirolez eta sabore atseginez betetako lau egun egongo dira disfrutetako.

Aste Santua beranduago izan da aurton eta, ondorioz, Pazko jaiak be beranduago etorriko jakuz; ekainaren 10etik 13ra arte hain zuzen be. Ez da harritzekoa, beraz, herritarrek jai-giroan murgiltzeko irrikan egotea eta, egia esan, aukerarik ez jake faltako. Izan be, aurreko urteetan bezala, Eguraldi ona jai-batzordea gogotsu ibili da beharrean, eta herritar guztiei zuzendutako egitaraua antolatu dau aurtengo jaietarako.

Jai-egitaraua jaso baizen laster, kontzertua nortzuk eskiniko daben begiratzeko ohiturea dabe gazteek. Zamudioko eszenatokiaren gainean euskal abeslarirrik eta musika talderik ezagunetariko batzuk ibiliko dira: Sorkun, Zea mays, Esne beltza, Zain, Gora herria eta Luhartz. Baina ez da musikea entzuteko eukiko dogun aukera bakarra. San Martin eleizak Udabarriko XXXIII. kontzertua hartuko dau eta bertan abesbatza honeexek hartuko dabe parte: Donostiako Aita Garayoa, Las Carreraseko San Pedro Ogeitalau, Bilboko San Fran Korue eta Zamudioko Kamara Korala. Bestalde, Pantxok eta Peiok musikea ipiniko deutsie "Kanta herriari" ekimenari.

Euskal dantzek eta kirolak be lekua izango dabe jaietan. Halan, bada, pelota

*Besteak beste, gazteentzako tailerrak, Sukalki Lehiaketea eta erromeriak egongo dira*

Parte hartu gure jaietan

Zamudio Udala

Jaiak euskaraz bizi!

ZAMUDIO
www.viajeszamudio.com
VIAJES BIDAIAK
Talleri, 6, I. 6 - 48170 Zamudio
T: 94 406 04 53 / Fax: 94 602 21 26

TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA
Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegi ondoan

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio
Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

AUTO-ESCUELAS
BASURTO
ESCUELA DE CAMPEONES
BAIMEN MOTA GUZTIAK
• Garraiolarientzako trebakuntza
• A.D.R. (gai arriskutsu)
• C.A.P.
▶ BILBAO – T: 944 275 898
▶ ZALLA – T: 946 390 425
▶ SODUPE – T: 946 398 521
▶ ZAMUDIO – T: 944 522 482
www.autoescuelabasurto.com

CEMAN CONSTRUCCIONES
César López Guerra
Tel: 94 452 09 05
Mobila: 605 727 375
Ugaldeguren Ind., 3
26-1. partzela, 2. nabea
48170, ZAMUDIO-Bizkaia

Ileapandegia
Ana Belén
estetika - solariuma
Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

*Musika Sorkun, Zain, Esne beltza eta Zea mays taldeen kontura izango da*

partidak antolatuko dira, eta dantzen agerraldia eskainiko dau Hiru bat dantza taldeak. Erromeria be egongo da Patxi eta konpainiaren eskutik.

**Danetarik, danontzat**

Bapo jatea gustaten jaku eta, horrexegaitik, gastronomiagaz lotutako ekintzak be ekarriko deuskuez jaiek. Barikuan perretxiko jana eskainiko da iluntzean, eta hurrengo egunean kazuelak izango dira nagusi. Sukalki Eguna aspalditik antolatzen dabe Zamudion eta arrakastarik handiena dauen ekintzenetariko bat da.

Gaztetxoak ez dira aspertuko. Zapatuan eurei zuzendutako tailerrak egongo dira Bidekoetxe parkean, eta skate erakustaldia eta ikastaroak be egingo dira. Era berean, domekan jolas-parkea ipiniko da eskolan. Zaldien ganean paseotxua emoteko aukerea be eukiko dabe, Zaldi Lasterketea eta erakusketea hirugarren aldiz antolatuko da-ta.

Aitatutakoez aparte, kalejirak, mezea, kopaua eta Mus eta Briska Txapelketak egongo dira Pazko jaietan. Danetarik, danontzat. Esan bezala, Pazko jaiak berandu ailegauko dira aurton, baina garaiz.

## Egitaraua

Sorkun

**Ekainaren 10ean, barikuan**
18:30: Txupinazoa eta gozokiak.
18:45: Kalejira, trikitilariakaz, txistulariakaz eta buruhandiakaz.
19:15: Pelota partidak, frontoian.
20:30: Perretxiko jana, Sabino Arana plazan.
23:30: Kontzertuak, Sabino Arana plazan: Sorkun + Esne beltza + Gora herria.

**Ekainaren 11n, zapatuan**
Sukalki Eguna, Bidekoetxe parkean.
10:00: Zaldi Lasterketea.
11:00: Zaldien erakustaldia.
12:30: Kalejirea, Gazte elai txistu taldeagaz.
14:00: Sukalki Txapelketearen aurkezpena eta sariak banatzea.
17:00: Umeentzako tailerrak, Bidekoetxe parkean.
17:00: Skate erakustaldia gazteentzat, eta ikastaroak.
17:00: Dantzaldia eta herri-animazinoa, Patxi eta konpainia taldeagaz.
20:30: Udabarriko XXXII. kontzertua, San Martin eleizan.
22:00: Erromeria, Bidekoetxe parkean.
23:00: Kontzertuak, Sabino Arana plazan: Zain + Zea mays + Luhartz.

**Ekainaren 12an, domekan**
10:00: Umeentzako jolas parkea, eskolan.
11:00: Mezea.
12:30: Kalejirea, Bertoko taldeagaz.
17:00: Dantzen agerraldia, Hiru bat dantza taldearen eskutik. Eskolan.
19:00: "Kanta herriari" ekimena: Pantxo eta Peio.

**Ekainaren 13an, astelehenean**
12:00: Mezea.
12:30: Kopaua, eleizpean. Trikitilariek girotua.
16:00: Mus eta Briska Txapelketak, Adintsuen Etxean.

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendari kudeatzailea
IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA
Torrelarragoiti ind. P 8-B
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
e-mail: gonzalo@vertigosl.es
Tel. 94 452 22 59 - Faxa 94 452 22 34

ASADOR ARAMENDI
EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEAK
JAUNARTZEAK
Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

SUSTERRAK
TABERNA
Zamarripa Plaza, ZAMUDIO
94 406 90 27
Asteburuetan katzolak
Afariak (aldez aurretik eskatuta)

ANULACIONES SEPTICAS
MUNGIA
Garbiketak eta mantentze-lanak
I Estolderia
I Tutuak
I Hobi septikoak
24 larrialdiek orduko serbitzua
Pinoa, 2C, 4, nabea I 48170 Zamudio BIZKAIA
T: 94 446 02 09 I Fax: 94 44675 99
mungia@saneamientosmungia.com I www.saneamientosmungia.com

Construcciones–Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Arbolantxa kalea, 8 - 1.ezk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Mobila: 665 70 33 12

Ile-apaindegia
Mª Antonia Llodio
TXIPI
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Iñaki
94 455 65 08
Jabi
94 452 14 31
Magalarte
txakolina
ARETXABALETA
Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen
75 cl.
10,75 % vol.

luz zamudio
ARGI APARATUAK
Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA
TALLERI KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net

hotela
jatetxea
aretxarte
Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Espezialitateak:
Pintxoak
Plater konbinatuak
Iberikoak
Lehendakari Agirre plaza, 2
48170 Zamudio
94 656 11 14
Crazy Guitar
Zamudio

Restaurante
JANA-JATETXEA
Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak
Torrelarragoiti ind. P-7
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Telefonoa 94 452 35 26
Tel./Faxa 94 452 06 64

AIKOR! 104 | 2011ko maiatza
www.aikor.com

# “Ikusle aktiboak nahi ditugu”

JOSU CAMARA | antzerkigilea

Josu Camara ezaguna da Txorierrin, Kukubiltxo antzerki taldeko zuzendaria izateagatik, baina orain beste ardura bat hartu du: Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkartearen (EHAZE) elkarteburua da. Josuk sektorearen kezkak azaldu dizkigu, hala ere, Txorierri eta bere bizitza ere izan ditugu hizpide.

*t/a: Gaizka Eguskiza*

**Zelan sortu zen elkartea?**

Duela urte bi Ikasi erakundeak jardunaldi pedagogikoak antolatu zituen Donostian. Bertan antzerkia jorratu genuen aditu batzuok, eta hainbat gai eta kezka adierazi genituen. Orduan, talde eragilea sortu genuen eta harrezkero, hilean bilera bat egin dugu. Eta iaz, ekainean, asanblada batek osatu zuen elkartea. Gure eztabaidagaiak ez dira merkatua, dirua edo programazioa; gurea askoz ideologikoagoa da.

**Zeintzuk dira EHAZE elkartearen ezaugarriak?**

Gure esparrua euskal antzerkia da, baina ez geografikoki, kulturalki baizik. Hau da, euskaraz egindako antzerkia jorratzen dugu. Gainera, zaletuok osatzen dugu elkartea, eta horrek esan nahi du antzerkiarekin edozein arlotan harremana duten pertsonak bildu nahi ditugula elkartean: ikusleak, antzezleak, ikasleak, herriko antzerki taldekide-

*"Antzerkiarekin harremana dutenak bildu nahi ditugu elkartean: zaletuak zein profesionalak"*

*"Gure esparrua euskal antzerkia da, hau da, euskaraz egiten dena"*

*"Euskal zazpi herrialdeetako lagunak ditugu elkartean eta hori oso garrantzitsua da"*

ak, gazteak, nagusiak, idazleak, teknikoak, zuzendariak... Oso talde zabala da. Guztira ia 100 bazkide batu gara, eta gehienak bizkaitarrak eta gipuzkoarrak izan arren, gainontzeko euskal herrialdeetako lagunak ere badaude, eta hori oso garrantzitsua da. Egoitza Azpeitian dugu, hango Udalak utzitako lokal batean, eta hori esanguratsua da guretzat: Azpeitia Hego Euskal Herriko erreferentzia da, bertan euskal antzerkigintzari buruzko jardunaldiak egiten baitziren.

**Zergatik zaletuak, eta ez soilik profesionalak?**

Guk euskal antzerkia, bere osotasunean, bultzatu nahi dugu, eta horretarako alde guztiak landu behar dira. Profesionalek euren zeregina izango dute, noski, baina bakarrik aritzen badira bultzada ez da erabatekoa izango. Ikusleak behar ditugu; eta ikusle eta zaletu aktiboak behar ditugu euskal antzerkia benetan sustatzeko. Orain arte, ikuslea beti izan da eragilea pasiboa antzerkian: txartela ordaindu eta

# Umeengandik eta Txorierritik gertu

Antzerkiaz gain, umeak dira Josu Camararen beste pasioa. Eta haiei lotuta irakasle hasi zen lanean, Algortako eta Erandioko ikastoletan. "Irakasle ez nintzen kasualitatez egin. Betidanik gustatu zait umeekin jolastea eta ibiltzea. Monitore ere ibili nintzen gaztetan. Antzerkian esparru libreago bat aurkitu nuen umeekin jolasteko, eta oraindik ere umeengan ikusten dudan indarra eta gogoa gustatzen zaizkit".

Antzerkia zaletasuntzat hartu zuen Josuk, 18 urte zituela. "Niretzat jolasa zen. Cómicos de la legua Bilboko taldean hasi, eta Algortako ikastolako gurasoen antzerki taldean zein Maskarada taldean jarraitu nuen. Eta artean irakaslea zenean, Toti Martinez de Lezea ezagutu zuen. "Totik txotxongiloei buruzko ikastaroa eman zuen eta harreman polita sortu zen gure artean". "Eltxoak koska egin, eta pozoitu" zuen Josu.



*"Oraindik umeengan ikusten dudan indarra eta gogoa gustatzen zaizkit"*

Orduan Kukubiltxon sartu zen. Taldea 1977an sortu zuen, Andra Mariko jaietan umeei zuzendutako ikuskizunak eskaintzeko. Josu bost urte beranduago sartu zen, eta apur bat beranduago, baita Jon Garai eta Mari Feli Etxeandia ere, "gaurko Kukubiltxo taldeko muina". Hortik aurrera, garai onak eta txarrak egon dira, eta gaur egun bost lagun daude bertan lanean. Krisia dela-eta, ikuskizun gutxi dute udari begira. "Bost emanaldi emango ditugu udan, eta ziur gaude gehiago aterako zaizkiguna. Abuztuan tailerra egingo dugu eta oporraldi txiki bat ere hartuko dugu".

**Txorierritarra**

Josuk harreman handia izan du beti Txorierrirekin. Ama lezamarra zen, "oso lezamarra". Bilbora ezkondu zen eta Josu hor jaio eta bizi izan zen. Hala ere, Kukubiltxoko egoitza Larrabetzun zegoen, eta Kattalin bere alaba jaio zenean hara joan ziren bizi izatera. "Erabaki zoragarria izan zen, lanetik gertuago egoteak beharra eta familia uztartzeko aukera eman zidalako. Geroago Lezamara joan ginen eta gaur egun bertan bizi naiz. Poz-pozik bizi gara Txorierrin, eta guztiz inplikatuta gaude batez ere Lezama eta Larrabetzuko herrietako eguneroko bizitzan. Oso txorierritar, lezamar eta larrabetzuarrak sentitzen gara".

aulkian eserita gelditzen zen; besterik ez zuen egiten. Guk, ordea, parte hartzeko aldarrikatzen dugu, esate baterako egitaraua osatzeko proposamenak egin ditzatela. Eta gure erronketako bat hauxe da: ikusle pasiboa izatetik aktiboa izatera pasatzea.

**Nolako erantzuna eman dute zaletuek? Parte hartzeko prest agertu dira?**

Erantzun harrigarria eman dute. Orain arte aurkitu ditugunak zaletu aktiboak izan dira: betidanik izandakoak, antzerki tailerretan parte hartu dutenak....

**Ikusle aktiboak lortzea aipatu duzu. Zeintzuk dira beste erronkak?**

Euskal antzerkian bakoitza bere kabuz dabil, eta horrek sakabanaketa sorrarazten du. Arazoak konpontzeko indarrak metatu behar ditugu. Baina beste arazo batzuk ere baditugu: eremu geografikoa oso txikia da eta horrek mugak ekartzen ditu. Era berean, Hegoaldean antzezlan erdaldunak programatzeko joera dago, tamalez, eta gaur egun jende gutxiagok ikusten ditu euskaraz egiten diren antzezlanak. Euskara, beraz, ez da hain errentagarria merkataritza ikuspuntu batetik.

**Zer egingo du elkarteak?**

Euskal antzerkiari buruzko diagnostiko orokorra egin behar dugu, hau da, euskal antzerkiaren mapa osatu behar dugu (zenbat konpainia, ikuskizun, antzoki, profesional, zaletu....). Eta hori daukagunean, gizarteari helaraziko diogu. Ildo honi jarraituz, herriz herri ibiliko gara sare aktibo bat osatzeko. Gure ustez, herritarrek parte hartzen badute askoz arrakastatsuagoak izango dira saioak euskaraz. Beti esaten dugu antzerkiak duen publizitaterik onena ahoz ahokoa dela. Gainera, transmisioa ere landu nahi dugu, hots, antzerkirako zaletasuna zelan zabaltzen dugun. Horretarako tailerrak eta ikastaroak emango ditugu eskoletan, herrietan eta antzerki taldeetan. Irakasleak hezi eta materiala prestatu behar dugu transmisioa berma-

*"Euskal antzerkia sakabanatuta dago; arazoak konpontzeko, ordea, indarrak metatu behar ditugu"*

*"Gazteen eskuetan dago etorkizuna; libreagoak dira, eta proposamen bitxiak egin ditzakete"*

tzeko. Eta euskal antzerkiaren artxiboa beharrezkoa da. Esparru haiei lotuta, hainbat ekimen egingo ditugu: Antzerkiaren Eguna antolatuko dugu; saria emango diogu antzerkiaren alde lan egin duen bateren bati; aurkezpenak egiten gabiltza euskal antzerkizaleekin harreman zuzenak lantzeko; Durangoko azokan ibili gara...

**Zelan ikusten duzu etorkizuna?**

Ikuspuntu ezkorrak eta baikorrak daude. Antzerkiaren patua krisia da, agian, baina ni itxaropentsua naiz. Antzerkia enpresa izango balitz moduan ulertzen da eta, ikuspuntu horretatik, egoera larria dago: krisia dago (bai ekonomikoa, bai kulturala), erakunde publikoak oinarrizko-egiak dira eta euskal antzezlanak gero eta gutxiago programatzen dira; era berean, gero eta ikusle gutxiago joaten da euskaraz egindako saioak ikustera. Hala ere, beste zirkuitu bat ere badago. Hori gazteek jakin badakite eta euren eskuetan dago etorkizuna. Jende gazte pilo bat dabil antzerkia egiten, eta euren egiturak ez dira hain zorrotzak. Ondorioz, libreagoak dira eta ezohiko proposamenak egiteko aukera dute.

AIKOR! 104 I 2011ko maiatza
www.aikor.com

# Gazteen talentua lantzeko topaketak

*Dizerdit, ni banoa!* topaketak Izarren Distira Lehiaketaren haritik antolatu dira eta gazteek euren sormena lantzea dute helburu. Doan izango dira eta ekainaren 28an eta 29an egingo dira Urduñan.

Izarren Distira Talentu Lehiaketa oso ekimen arrakastatsua izan zen gurean, eta, horregatik, hura bigarren aldiz antolatzea erabaki du Mankomunitateak. Lehiaketaren aurkezpenak irailean egingo dituzte, baina gazteek harekin lotuta dauden sormen topaketetan parte hartzeko aukera izango dute ekainaren 28an eta 29an. *Dizerdit, ni banoa!* topaketak 12 urtetik 18 urtera bitarteko gazteei daude zuzenduta eta Urduñako aterpetxean egingo dira.

Mankomunitatetik adierazi duten moduan, Izarren Distiraren aurtengo edizioan lehiaketa kontzeptua gainditu eta indarra sormenean jartzea erabaki dute. Horrela, topaketetan hainbat tailer egingo dira, gazteek ikuskizun munduarekin zerikusia duten arloak lan ditzaten: antzerkia, bideogintza, musika eta gorputz-espresioa, banaka batzuk aipatzearren. Tailerrak adituek emango dituzte eta euren artean aktoreak eta ETBko langileak egongo dira. Gauean, ekimen ludikoagoak egingo dituzte.

Egitasmoa Txorierriko Mankomunitateak antolatu du Getxo, Uribe Kosta eta Durangaldeko Udal eta Mankomunitateekin batera, eta antolakuntza lanetan Topaguneak hartuko du parte. "Sormen topaketen bitartez hainbat helburu lortu nahi ditugu. Alde batetik, gazteek euskara gozamenarekin lotzea nahi dugu, eta gure hizkuntza gune ez formaletan ere erabil dezatela. Bestetik, aukera ezin hobea da euren sormena eta gaitasun artistikoak lan ditzaten, eta beste eskualdeetako gazteak ezagut ditzaten".

**Graffitia**

Ekimena doan izango da eta bertan izena emateko epea ekainaren 14ra arte egongo da zabalik. Izena ematea www.izarrendistira.com webgunean edo tuentiren bidez egin daiteke. Hala ere, topaketetan parte hartzen duten gazteek ez dute derrigorrean galan izena eman behar, edo alderantziz. Aterpetxean 100 lagunentzako tokia dago, 25 lagun udalerriko, eta plazak izena emateko ordenaren arabera gordeko dira. Udalerri batek 25 plazak beteko ez balitu, horiek beste udalerrietako lagunek hartuko lituzkete. Gazteekin Topaguneko 13 begirale joango dira Urduñara, eta aterpetxeko langileak ere izango dira bertan.

*"Getxo, Uribe Kosta eta Durangoko gazteek ere hartuko dute parte ekimenean"*

Sormen topaketak gazteei ezagutzera emateko, maiatzean graffiti egile batek irudi bat margotu zuen institutuan. Topaguneko arduradunek ekimenaren gorabeherak eta helburuak kontatu zizkieten gazteei bertan. Horrezaz gainera, informazioa agindu da Txorierriko gaztelekuetara, gazteek han ere topaketen berri izan dezaten.

Bakea behar dugu
SONDIKAKO JAIETAN DIBERTSIOA BAI!
SONDIKAKO
UDALA
Etorri eta parte hartu

Gautxori
Errementeri kalea, 18
48150 SONDIKA


Martínez Zalduendo Doktorea
Mediku estomatologoa
EHUko Odontologia irakaslea
Panky EEUU Profesiak
Clínica Sondika
Dental
"1983tik hona zaintzen dugu zure bizi-irribarrea
Goiri, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
Faxa: 94 453 11 68
e-mail: sondikadencli@euskalnet.net
www.euskalnet.net/sondikadencli

Txorierri Et., 30
48150 SONDIKA
94 453 35 05
667 78 63 31
ORAIN
GAUTXORI TABERNA
ERREMENTERI KALEAN
GIRORIK ONENA
LAGUN ARTEAN
PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA

TXORIERRI
Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./FAxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
ERAIKUNTZA - ALOKAIRUAK
ABOLIKUCLARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ESKUALDATZEAK
SALEROSKETAK
SEGUROS BILBAOREN AGENTZIA

auto-escuela SONDIKA
Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa
Mateo Bidaurrazaga 2
Telefonoa 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia
Plaza iturriondo, 2 (goia)
Telefonoa: 94 445 90 67
48007 Zurbaranbarri - Bilbo

pro audio
SOINUAN ADITUAK
Txorierri et., 15
48850 Sondika.bizkaia
944 533 375
www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com
hi-fi
nabigazioa
telefonia
segurtasuna
lehiaketa
pertsonalizatzea

Consulting Sondika s.l.
Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 473 746
Mitxine, 6 behea
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

yedra
floristas
Mikel Zarate, 2 · 48150 Sondika · Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 · yedrainterflora@hotmail.com

AIKOR! 104 I 2011ko maiatza
www.aikor.com

# Suak argituko dau San Joan gaua

Sondikako jai-batzordeko neska-mutilek ahalegin handia egin dabe herritar guztientzako ekitaldiak antolatzeko. Aurreko urteetan legez, aurton be asmau egin dabe eta, horretarako, ohiko formulak nahastu ditue nobedadeakaz.

*t: Sondikako Jai Batzordea / a: Juanjo Ortiz*

Eta lehenengo nobedadea San Joan egunean bertan ailegauko jaku. Bartzelonako talde batek *Acrovision* piroteknia-ikuskizuna eskiniko dau sua biztu baino lehen. Zirku-ikuskizun bat da, sua protagonista nagusitzat izango dauena, eta gaua magikoago bihurtuko dau, ziur asko. "San Joan gaua jaietako momenturik inportanteena da, eta horregaitik bultzada berezia emon gura izan deutsagu". Ikusleek ederto pasauko dabe saltinbankiakaz eta malabaristakaz.

Jaiek ekarriko deuskuen beste nobedade bat gazteek zapatu arrastian egingo daben triki-poteoa da. "Helburuak honeek dira: alde batetik, herriko gazte guztiak alkartzea; eta, bestetik, ekitaldiak nagusiki landan egiten diranez, jai-giroa herrira be hurbiltzea".

"Jaiak batez be umeei dagoz zuzenduta, baina herritar eta adin guztien gustukoak izan daitezken ekimenak be antolatu dira". Musikatik hasiko gara. Betagarri taldearena kontzertu nagusia izango da aurtengo jaietan; halanda be, Akerbeltz, Izargi, Jo ta hanka eta Luhartz taldeek be musikea jarriko deutsee gaueko berbenei eta erromeriei. Horrezaz ganera, aukerea emongo jake herriko musikari gazteei, herrian bertan jo daien.

Tiragoma Txapelketea tradizino handiko ekimena izan da Sondikan, eta jai-batzordeak ahalegina egin eban igaz, ha berreskuratzeko. "Arrakastatsua izan zan eta bigarren aldiz antolatuko dogu aurton". Ez da izango lehiaketa bakarra, jai-batzordeak tortilla txapelketea eta mus txapelketea be antolatu ditu barikurako eta zapaturako, hurrenez hurren.

Aitatutakoez ganera, aukera sorta zabala eukiko dogu Sondikako jaietan ondo paseteko: bigantxak, kalejirak, dantzen agerraldia, umeentzako ekitaldiak, su artifizialak eta herri kirolak, esate baterako. Txupinazoa ekainaren 23an botako da, arrastiko 7etan, eta jai-giroak Sondikako kaleak hartuko ditu lau egunez, eta denak kutsatuko ditu, herrikoak nahiz erbestekoak izan.

*Piroteknia-ikuskizun bat eta gazteentzako triki-poteoa dira aurtengo jaietako nobedade biak*

*Batez be umeei zuzenduta egon arren, herritar guztien gustuko jai-egitaraua antolatu da*

Txorierri
Rocío Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
María Conde Bilbao
Mitxine 6, bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885 - www.cdtxorierri.com

ATARRABI
Errementeri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

**Ekainaren 23a, eguaztena**
18:00: Bigantxak.
19:00: Txupinazoa.
19:30: Pentagrama Soinu Alkartearen emonaldia.
22:00: *Acrovision* piroteknia-ikuskizuna.
23:00: San Joan sua.
23:30: Herriko taldeen kontzertua.
00:30: Akerbeltz.
**Ekainaren 24a, barikua**
11:30: Kalejirea, Ipar Elaiak taldeko txistulariek girotua.
12:00-15:00: Fanfarrea.
12:30: Fanfarrea eta aurreskua.
13:00: Apar-jaia.
13:30: Kopaua, jubiladuentzat.

## Egitaraua

16:00: *Kosmolariak* umeentzako ikuskizuna.
18:00: Bigantxak.
19:30: Dantzen alardea, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik. Gurasoek be hartuko dabe parte.
21:30: Tortilla Lehiaketea.
22:30: Herriko taldeen kontzertua.
01:00: Berbenea, Izargi taldeagaz.
**Ekainaren 25a, zapatua**
11:00-14:00: Umeentzako jolas-parkea.
12:00: Kalejirea, Ipar Elaiak taldeko txistulariek girotua.
12:00: Herri kirolak, umeentzat.
16:00: Mus Txapelketea.
18:00: Sondikako II. Tiragoma Txapelketea.
19:00: Triki-poteoa.
20:00: Herri kirolen eta Iparraldeko jokoen erakustaldia.
23:00: Su artifizialak.
23:30: Kontzertua: Betagarri.
01:00: Berbenea, Jo ta hanka taldeagaz eta DJ bategaz.
**Ekainaren 26a, domeka**
11:00-14:00: Umeentzako jolas-parkea.
12:00: Kalejirea, Ipar Elaiak taldeko txistulariek girotua.
12:00-15:00: Fanfarrea.
15:00: Sukalkia.
19:30: Dantzen alardea, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.
20:00: Erromeria, Luhartz taldeagaz.
22:00: Azken trakea.

LIBRERIA SONDIKA LIBURUDENDA
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak, prentsa, aldizkariak, liburuak, papergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

AM
Formación y Traducciones
• Ingelesa maila guztietan
• Eskolak enpresetan
• Cambridge Unibertsitateako azterketak prestaketa, EOI...
• Itzulpenak hizkuntza ezberdinetan
Garaioltza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69
Errementeri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08
amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

GALAISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Etenggabeko ordutegia
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

AIKOR! 104 I 2011ko maiatza
www.aikor.com

# “Tratu txarrak geuk sumatzen ditugu gehienetan”

ROSA FERNANDEZ DE LEZETA I gizarte-langilea

Genero-indarkeria gaur egungo gaitzik handienetako bat da, eta administrazioak zein gizarteak pauso sendoak egin behar dituzte, hari aurre egiteko. Rosa Mankomunitatetako gizarte-langilea da, eta biktimek zein baliabide dituzten eskura azaldu digu.

**Badugu daturik Txorierrin?**

Ez dago datu zehatzik, baina, egia esateko, genero-indarkeria dela-eta gugana jotzen duen emakume kopurua ez da oso handia. Eta ziur gaude kasu gehiago egongo direla. Orokorrean, laguntza eskatzen duenak oso egoera gogorrean dagoelako egiten du; kasu gehienetan, emakumea beste arrazoi batzuengatik etortzen da, eta, azkenean, tartean tratu txarrak daudela konturatzen gara. Ertzaintzak ere jakinaren gainean jartzen gaitu, kasuren bat topatzen badu.

**Zein da emakume horien profila?**

Genero-indarkeria baliabide gutxiko gizarte-mailarekin lotzeko joera dugu, baina maila guztietan gertatzen da. Bestalde, etorkin kopurua handitu ahala, genero-indarkeriaren kasuak ere gehitu direla nabaritu dugu. Beldur diote egoera ekonomikoari, seme-alaben etorkizunari.... Psikologikoki oso ahulak dira eta dependentzia handia dute. Ez dakite biktimak edo errudunak diren. Paperik ez duten etorkinak beldur izaten dira poliziak berriro bidaliko ote dituen euren herrira.

**Zelan laguntzen diezue?**

Biktimak lesio-parterik ez badakar, ospitalera agintzen dugu, mediku batek hura egiteko. Familiarik ez badu, guk laguntzen diogu. Ondoren, Ertzaintzara joaten gara, salaketa jarri, eta epaiketa azkarra egiteko protokoloa sustatzen da. Epaileak hura onartuz gero, epaiketa egi-

OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

GUEDAN
servicios deportivos, s.a
Jesusen Bihotza plaza, 5 - Euskalduna er. 7, 1. dpto
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12
ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74

ten da eta urruntze-agindua ezartzen zaio gaizkileari. Hurrengo pausoa bere eskubideen berri ematea da. Salaketa gizarte-langileon ordutegitik kanpo egiten bada, Ertzaintza bera arduratzen da guztiaz.

**Zeintzuk dira eskubide horiek?**

Etxetik irten behar duen pertsona bada, eta etxean har dezakeen familiarik ez badu, premiazko txostena egin eta Aldundira bidaltzen dugu faxez. Aldundiak emakumearen egoera aztertu, eta egonaldi ertain edo luzeko zentro batera bidaltzen du, harik eta etxebizitza, lana... topatzen duen arte. Abegi-zentroan bertan informazioa ematen zaio arlo ekonomikoan, juridikoan eta psikologikoan dituen eskubideei buruz, eta, horiek lortzeko, jarraitu behar dituen izapideak ere azaltzen zaizkio. Emakumea abegi-zentroan ez badago, guk ematen diogu behar duen informazio guztia, eta harremanetan jartzen dugu aipatutako arlo bakoitzaz arduratzen den erakundearekin.

**Zelan funtzionatzen dute?**

Egia esateko, abegi-zentroarena oso azkar egiten den kontua da, baina gainontzeko zerbitzuak astirago joaten dira, oso eskaera handia dagoelako. Laguntza ekonomikoari dagokionez, adibidez, tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeek ez dute izaten bereziki beraiei zuzendutako laguntzarik, baizik eta, adinaren, famili egoeraren... araberako salbuespenak salbu, gainontzeko kolektiboek jasotzen duten laguntza bera dute. Arreta psikologikoaren zerbitzua ere gainezka dago eta hitzorduak oso berandurako ematen dira. Beraz, badago zer zuzendu eta hobetu.

**Zerbitzu zehatzik eskaintzen zaie Mankomunitatetik?**

Esandakoaz gain, ofizioko abokatua hartzeko egin behar dituzten agiriekin laguntzen diegu, baina kontu berezia bada, Clara Campoamor elkartera bidaltzen ditugu. Zerbitzu juridikoa da gure alde ahula. Ondo legoke zerbitzu egokia eskaini ahal izatea, baina ez genero-indarkeriaren kasuei dagokienez bakarrik, orokorrean baizik. Psikologoa ere badugu, baina hainbat arloz arduratzen da, eta ez da nahikoa. Esparru honetan ere zerbitzu egokiagoa eskaini beharko litzateke.

**Emakumeekin egiten duzue lan, tratu txarrak ematen dituztenekin?**

Terapiara doazen gutxi batzuk egon arren, oso zaila da tratu txarrak ematen dituenarekin hitz egitea hemengoa denean. Ez duelako nahi izaten, edo urruntze-aginduaren ondorioz herritik kanpo alde egin behar izan duelako. Kanpotarrei deitzen diegunean, etortzen dira gugana, baina tratu txarrak kulturarekin daude lotuta kasu hauetan, eta ez dira zerbitzu psikologikora joaten.

*"Zerbitzua batez ere arlo juridikoan eta psikologikoan hobetu beharko litzateke"*

AIKOR! 104 I 2011ko maiatza
www.aikor.com

# "Sena berezia du proiektuak"

KEPA ARMENDARIZ I arkitektoa

Laster hasiko dira Baserri Antzokia eraikitzeko lanak, eta handik urtebetera aukera izango dugu egoitzaz gozatzeko. Kepa Armendariz bere arkitektoak esan digu eraikin berezia izango dela, eta bide batez, azaldu digu zergatik.

**Zeintzuk dira Baserri Antzokiaren ezaugarri nagusiak?**

Nik baserria bera azpimarratuko nuke, horixe baita eraikinaren egituraren oinarria. Baserria oso adierazgarria da Euskal Herriko kulturan. Txorierriko Baserri Antzokia modernoa eta jasangarria izango da. Lehen, baserriak eraikitzeko, inguruko materialak erabiltzen ziren: zelaietan topatutako harriak, gertu zeuden arbolak (haritzak, batez ere)... Baliabideak urriak izan arren, hortik sortzen zen eraikinak mendeak eta mendeak irauten zuen zutunik, eta bertan denetarik egiten zuten etxekoek: bizi, lan egin... Bizkaiko baserriek laukizuzen formako areto nagusia dute, eta horren gainean estalki soila jartzen da. Inguruan beste eraikin txiki batzuk daude, eta hor hainbat jarduera egiten dira: animaliak eta uzta gorde, labea... Eredu hari jarraituta egin dugu Baserri Antzokia. Areto nagusian jarduera gehienak egingo dira, baina areto txiki batzuetan ere ekintzak egiteko aukera egongo da. Gainera, estalirik gabeko aretoa egokituko dugu, haizetik babestua baina eguzkiari begira, eta hor ere egin ahal izango dira ekintzak.

**Egurra, harria eta kristala erabiliko dira Baserria eraikitzeko. Zergatik?**

*"Baserria oso adierazgarria da Euskal Herriko kulturan, eta horregatik hartu dugu oinarritzat"*

Baserriko oinarrizko materialak direlako, eta ez dugu sen hori galdu nahi izan. Baina garai berrietara egokituko gara. Lehen haritza eta gaztainondoa erabiltzen ziren; guk, ordea, pinua, inguruan gehiago daudelako gaur egun. Egitura, hau da, zutabeak eta estalkiak egurrezkoak izango dira; ormak, hormigoizkoak, baina landutako harriz inguratuta. Areto zabalak sortuko ditugu eta han kristala jarriko dugu.

**Eraikin jasangarria izango dela aipatu duzu. Zergatik?**

Ustiapen ekologikoetatik hartuko dugu egurra. Bestalde, zenbat eta kontsumo txikiagoa izan, orduan eta jasangarriagoak gara, gure ustez. Horregatik, material isolatzaileak erabiliko ditugu, baita ganbera bikoitzeko kristalak ere. Energia-iturriei dagokienez, geotermia erabiliko dugu, hau da, lurrak beroa ekarriko digu neguan; eta udan, hotza. Azkenik, eraikinaren kokapena eta orientazioa ere aipatu beharra dago, jasangarritasunari buruz hitz egiten badugu. Horrela, etxaurrea hegoaldeari begira egongo da.

**Baserriak aldatu egin dira denboraren poderioz, eta gaur egun jendeak bertan bizi baino ez du egiten. Eraginik izan du aldaketa horrek Baserri Antzokia diseinatzeko orduan?**

Ohiko baserrietako aurreko aldean etxea zegoen; atzeko aldean, kortak eta lastategia; eta goian, ganbara. Denbora pasa ahala, baserriak egokitu behar izan dira, nekazaritzak eta abeltzaintzak garrantzia galdu baitute, tamalez. Guk antzeko egitura bat egin dugu eta zati bi horiek mantendu ditugu: aurreko aldean, sarrera, eta atzean, antzokia.

**Zerk bereizten du Baserri Antzokiaren eraikina?**

Baserria bera. Beste antzokiak taberna arruntak bezalakoak dira; gureak, ordea, sen berezia du. Gure kultura argi eta garbi da agerian erakinean.

# Eman giltza seme-alabei

**Gurasoek webgune baten bitartez argitu ahalko dituzte hizkuntzaren inguruan dituzten kezkak. Proiektua Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jarri du martxan, eta euskara ardatz eta erreferentzia-hizkuntza izango duten seme-alaba eleaniztunak heztea du helburu.**

Aurreko urteetan, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak sentsibilizazio kanpainak zabaldu ditu zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen gurasoen artean, haiek euskararen garrantziaz jabetzeko. Horren haritik, haientzat lagungarria izan daiteken informazioa eta *Ku-ku* umeentzako liburuxka agindu zaizkie etxera orain arte. Baina Euskara Zerbitzua haratago joan da aurten, eta proiektu berri bat jarri du martxan: www.emangiltza.com webgunea, hain zuzen ere. Proiektua Bizkaiko beste udalerri batzuekin batera sustatu du. "Gurasoei edozein momentutan azal dakizkieke kezkak edo zalantzak, eta haiek berehala argitzeko aukera emango zaien gunea sortu nahi genuen", azaldu digu Laura Martinezek.

Proiektuari itxura ematen hasteko, lau eztabaida-talde osatu ziren Bizkai mailan. Talde bat guraso euskaldunek osatu zuten; talde bi, guraso erdaldunek; eta bestea, gurasoetariko bat erdalduna eta bestea euskalduna ziren bikoteek. Horrezaz gainera, elkarrizketa sakona egin zitzaien atzerritar batzuei. "Gurasoen ama-hizkuntza edozein dela ere, euren kezkak eta esperientziak zuzenean ezagutzea interesgarritzat jo genuen. Era berean, proiektuari buruz zuten iritzia ezagutu nahi genuen, haren nondik norakoak ezartzeko". Eztabaida-taldeetatik eta elkarrizketetatik ateratako ondorioak aztertu ostean, hurrengo pausua bai kanpaina, bai webgunea diseinatzea izan da. Azken hau maiatzaren amaieran egongo da martxan.

Webgunea hiru hizkuntzetan egin da: euskaraz, gazteleraz eta frantsesez. Hara sartu eta bideo baten bidez, aita edo ama batek azalduko digu bere esperientzia hizkuntzarekin. Webgunea bisitatzera animatuko gaitu eta bertan topatuko dugunaren aurrerapena emango digu.

**Dikotomia gainditu**

Gurasoek ohiko zalantzak argitu ahalko dituzte www.emangiltza.com webguneari esker: seme-alabekin euskaraz saiatu behar naiz, nahiz eta banaka hitz batzuk ezagutu? Nola lagundu ahal diet etxerako lanekin?... Marrazki bizidunetarako, argitalpenerako, katalogoetarako eta abarretarako loturak ere topatuko dituzte bertan, eta hizkuntzarekin jolasteko mila proposamen: ipuinak, hainbat ideia euskara gehiago erabiltzeko... Gainera, kontsultak egiteko aukera ere izango dute, eta haiei adituek emango diete erantzuna.

Laura Martinezen esanetan, proiektuak gurasoak euskararen transmisioak duen garrantziaz jabetzea du helburu, eta euskara ardatz eta erreferentzia-hizkuntza izango duten seme-alaba eleaniztunak izatea. "Euskara-gaztelania dikotomia gainditu eta eleaniztasunera jo behar dela ere helarazi nahi diegu gurasoei. Etxeko hizkuntza irakatsi eta zaindu behar da, baina euskararekin eta gaztelaniarekin ere eduki behar da harreman positiboa, eta beste hizkuntzekiko interesa eta errespetua izan".

Etxeetara diptiko bat aginduko da webgunearen berri emanez, eta 2 urtetik 3 urtera bitarteko umeen gurasoek *Ku-ku* liburua ere jasoko dute oparitzat. Euskara Zerbitzuak eskolekin egingo du lan, haiek ere erremintaren edukia gurasoei azal diezaieten. Webgunera jo eta han dagoen inkesta betetzen dutenek zozketa batean hartuko dute parte. Orotara lau sari zozketatuko dira: lau lagunentzako egonaldia landetxe batean, eta euskarazko jolasen hiru sorta.

# Euskal literaturea kalean

## Literaturia ekimenak Euskal Herriko idazleak eta irakurleak hirugarren aldiz batuko ditu Larrabetzun, ekainaren 3tik 5era bitartean




Euskera hutsezko literatura azokea da Literaturia, eta helburu hau dau: euskerazko literaturea jentearengana hurreratzea eta literaturearen alde ludikoa agerian jartea. Liburuetan ez eze musikan, poesian, antzerkian... be topau daitekelako literaturea. Ekimena orain dala hiru urte jaio zan Larrabetzuko Literatura Eskolaren baitan, eta handik hona herria erakustoki erraldoi bihurtzen dau hiru egunean zehar. Bertan euskal literaturearen inguruan dabilen mobimentua, eta azken beharrak ezagutzeko aukerea eukiko dogu. Horren haritik, aurton sei argitaletxe aurkeztuko dabe liburu bana, Literaturian beste inon baino lehen: Iñigo Aranbarriren *Zamaontzia* nobela barria (Susa); Alberto Ladron Arananen *Zer barkaturik ez* nobela barria (Elkar); Goizalde Landabasoren *Banskit* nobela barria (Txalaparta); *Decameron. 10 ipuin* (Igela); Joseba Tobarren *Anaitasuna aldizkaritik finantza kapitalismora* saiakera (Utriusque vasconiae); eta Karmele Igartuaren *Itsaso kontra bat* hil osteko poema liburua (Pamiela).

Kukubiltxo antzerki taldeak hasiera emongo deutso aurtengo azokeari, barikuan. Ruper Ordorikak be emonaldia eskainiko dau Anguleri kultura etxearen aurrean, eta Arkaitz Estiballes, Fredi Paia eta Etxahun Lekue bertsolariek Hudaltzainak ikuskizuna eroango dabe Hori Bai gaztetxera.

**Asteburu bizia**

Euskal Herriko irakurle taldeek Literatura eskolea eukiko dabe zapatu goizean eta han irakurzaletasunaren transmisinoa eukiko dabe hizpide. Era berean, liburuaren aurkezpenak egingo dira eta arratsaldean Bernardo Atxagak zuzentzen dauan *Erlea-4* aldizkaria aurkeztuko da plazan. Besteak beste, Anarik, Mursegok eta Jon

BIZKAIA irratia
BIZKAIA IRRATIA Txorierrin
F.M. 102.6 Mhz
www.bizkaiairratia.com

# Egitaraua

**Ekainaren 3an, barikuan**
20:00: Harrera ekitaldia, Kukubiltxo antzerki taldearen eskutik. Anguleri kultura etxearen aurrean.
23:00: Ruper Ordorika, Anguleri kultura etxearen aurrean.
00:00: Hudaltzainak, Hori Bai gaztetxean.

**Ekainaren 4an, zapatuan**
10:00-11:30: Literatura Eskola, Euskal Herriko irakurle taldeen eskutik. "Irakurzaletasunaren transmisinoa: noiz eta nola?", Anguleri kultura etxean.
12:00-15:00: Liburuen aurkezpenak, plazan.
15:00: Bazkaria, Gurpide alkarteak antolatua. Eskolan.
18:00: Umeentzako antzerkia, Tximintx Derioko euskera alkarteak antolatua. Anguleri kultura etxearen aurrean.
20:00: "Erle irakurlearen saioa". *Erlea-4* aldizkariaren aurkezpena, Bernardo Atxaga eta hainbat partaidegaz. Plazan.
23:00: Kontzertuak: Anari + Mursego + Napóka Hiria + Jon Miner eta Intxitxu Lotien banda + Bi hitz & Beats. Hori Bai gaztetxean.

**Ekainaren 5ean, domekan**
10:00-11:30: "Antzerki testuen iragana, oraina eta geroa" mahai-ingurua, EHAZEk bideratua. Anguleri kultura etxean.
12:00-15:00 Liburuen aurkezpenak, plazan.
15:00: Bazkaria, Gurpide alkarteak eta Txinpasmendi gurasoen alkarteak antolatua. Eskolan.
17:30: Bertso-trama literarioa, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagaren eskutik. Tramagilea: Josu Goikoetxea. Plazan.
19:00: Hura ez da lekua ikuskizuna, Hori Bai gaztetxean.
20:00: Poesia errezitaldiak: Miren Agur Meabe, Jon Benito, Paddy Rekalde, Josetxo Azkona, Asier Serrano eta Antonio Casado de Rocha. Hori Bai gaztetxean.

**LITERATURIATXUA**
**Ekainaren 4an, zapatuan**
13:00: Eskolako umeen trikitiaren emonaldia, herritik.
14:00: Umeek ipuinak irakurri, umeek irudiak egin. Anguleri kultura etxearen aurrean.
**Ekainaren 5ean, domekan**
13:30: Ipuin bertsotua, Larrabetzuko bertso eskolako gazteek antolatua. Anguleri kultura etxearen aurrean.

Miner eta Intxitxu Lotien bandak musikea jarriko deutsie gauari.

EHAZE Euskal Herriko antzerkizale alkarteak antzerki testuen inguruko mahai-ingurua zuzenduko dau domeka goizean, eta Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga bertsolariak bertso-trama literario baten protagonistak izango dira arratsaldean. *Hura ez da lekua* ikuskizunak eta poesia errezitaldiek amaierea emongo deutsie Literaturiari.

Asteburu bizia izango da eta gaztetxoek be euren lekua eukiko dabe han. Halan, Literaturiatxua azokaren barruan, hainbat ekitaldi antolatu dira eurei zuzenduta: trikitiaren emonaldia eta ipuin bertsotua, tartean. Honeek zein nagusiei zuzendutako ekitaldiak www.literaturia.org webgunearen bidez zabalduko dira mundura.

AIKOR! 104 | 2011ko maiatza
www.aikor.com

# "Ohiko garraiobideen ordezkoa da bizikleta"

## MANUEL FRANCISCO | Txorierri txirrindularitza elkartea

Taldean bost lagun baino ez daude, baina lasterketa handi eta jendetsu bi antolatzen dituzte urtero Txorierri txirrindularitza elkarteko kideek. Manu Francisco elkarteko kidea eta bizikletazale amorratua da. Berak eman digu taldearen gorabeheren berri.

*t: Gaizka Eguskiza / a: Mª Carmen Noya*

**Noiz sortu zen taldea?**

Taldea 1981ean sortu zen, txirrindularitza bultzatzeko. Garai batean, hainbat lagun ibiltzen ziren taldean, eta Txorierrin azken urteotan sortu diren txirrindularirik onenak ere (Jonathan González edo Mikel Artetxe) gurean hasi ziren. Gaur egun, ordea, bost lagun baino ez gaude.

**Nolako ekintzak egiten dituzue urte osoan zehar?**

Batez ere, Emakumeen Txorierri Sari Nagusia eta zikloturismo ibilaldia. Umeak egongo balira, gustatuko litzaidake eskola sortzea. Badago zaletasun handia, baina gurasoek uste dute errepideak ez direla seguruak, eta beldur diote bizikletari. Beste arazo bat ere badugu: oso jende gutxi agertzen da lan egiteko prest. Guztiok dugu geure bizimodua, eta horrelako talde batean aritzeak denbora kentzen digu. Gainera, beharra doan egiten da...

**Harremanetan zaudete Txorierriko beste txirrindulari taldeekin?**

Bai, Zamudio zein Derioko taldeen baimenak eta fitxak nik kudeatzen ditut Federazioan. Eta Leioa eta Erandioko taldeekin ere harremanetan gaude. Era berean, batzuetan Federazioan biltzen gara eta txirrindularitza bultzatzeko ekimenak antolatzen ditugu bertan.

**Leku ona da Txorierri txirrindularitzan aritzeko?**

Leku erabat aproposa iruditzen zait: bailara da eta, aldapak eta mendiak egon arren, oso leku atsegina da txirrindularitzan aritzeko. Nire ustez, bizikleta ohiko garraiobideen ordezkoa da. Txorierrin hainbat enpresa daude, eta, industriaguneetatik herrira joateko, kotxea erabiltzen dugu, nahiz eta oso gertu egon. Ez dugu barneratuta bizikleta-kulturarik.

**Ospe txarreko kirola da gaur egun txirrindularitza, dopina eta istiluak direla-eta. Eragina du horrek taldean?**

Ez, baina gaur egun beste era batean ikusten ditugu txirrindulariak. Dopina egon badago txirrindularitzan, baina pentsatu behar genuke zergatik egiten den eta nolako kirola nahi dugun. Txirrindularitzan badira arau batzuk: eta, txarto badaude, aldatu egin beharko ditugu; bestela, bete egin behar dira eta kito. Goimailako kirola ez da osasuntsua, baina gu beste maila batean gaude: zaletuen kirola da gurea.

**Zelan ikusten duzu etorkizuna?**

Lasterketak antolatzen eta txirrindularitza bultzatzen jarraituko dugu. Izan ere, oso kirol polita da, eta hasten denak ez du inoiz uzten. Era berean, erakunde publikoek azpiegiturak (bidegorriak, bide berdeak...) egin behar dituzte, eta halaxe egin dute azken urteotan.

*"Umeak egongo balira, gustatuko litzaidake eskola sortzea"*

# Urteko hitzorduak

Urtean ekimen nagusi bi antolatzen ditu Txorierri txirrindularitza elkarteak: bata, Emakumeen Txorierri Sari Nagusia, eta bestea zikloturismo ibilaldia. Biek ala biek txirrindularitza bultzatzea dute helburu. "2008an hasi ginen nesken lasterketa egiten. Hasiera batean, Bizkai mailan antolatzen genuen, eta lehenengo urtean 40 txirrindularik eman zuten izena. Geroago Espainiako Kopan sartu genuen lasterketa, eta, horren ondorioz, Estatuko zein Portugaleko neskak hasi ziren etortzen", esan du Manu elkarteko kideak.

"Aurten, 24 taldek eta 174 neskak hartu dute parte kadete (14 urtetik 16 urtera bitartekoak), gazte (16 urtetik 18 urtera bitartekoak) eta elite (18 urtetik gorakoak) mailetan. UCI taldeak dira, goi-mailakoak. Urtean zehar, Tourrean eta Giroan ibiltzen dira lehian". Taldeek 35 kilometroko ibilbidea egin behar dute: kadeteek, behin,

eta besteek; hiru aldiz. "Urterik urtera gero eta hobeto egiten joan gara, eta lasterketa nahiko finkatuta dagoela esango nuke. Normalean, 350 ordu ematen ditut dena antolatzen. Hau da, nire lana hori izango balitz eta egunean zortzi ordu egingo banu lan, 40 egun emango nuke lasterketa antolatzen. Gogorra da".

**Zikloturismo ibilaldia**

Beste lasterketa zikloturismo ibilaldia da. Taldea duela 14 urte hasi zen hura egiten, Fernando Astorkiren omenez. Astorki Espainiako Itzuliko medikua izan zen hainbat urtetan. Ibilbideak 95 kilometro ditu, eta Leioan hasi eta amaitzen da. Txirrindulariak Txorierri, Gernika, Mungia, Meñaka eta Unbetik ibiltzen dira, besteak beste. "Ibilbide polita da, eta ez oso gogorra. Eguzkia denean, 500 lagun etortzen dira. Lasterketa ofiziala ez denez, ez da errepiderik mozten, eta txirrindulariek Zirkulazio Kodea bete beharra izaten dute, baina parte-hartzaileak eta antolatzaileok pozik gaude".

# Leginatik paseoan

Gure lagun bat gora eta behera ibili zan Lezamatik orain dala gitxi. Herriko alkarteek kaleratutako *Lezamako ibilpideak* aldizkaritxuaren barri euki eban, eta han proponidutako txangoetariko bat egitera animau zan: Elorria. Geuk be mendiko botak janzteko asmoa dogu, eta edozein domekatan Lezamako bazterrak ezagutzera aterako gara. Aldizkaritxuari bota deutsagu begiradea eta Legina izeneko ibilpideagaz ahaleginduko garala erabagi dogu. Haren zehetasunak ondorengo orrialdeotan emongo deutsueguz, bidea gugaz egin gura badozue be.

Aldizkaritxuaren egileek aitatukoaren arabera, ibilpide erraza da, eta gitxi gorabehera ordubete eta 40 minutu emongo doguz bidean. Prest gagoz.

Udaletxeko plazatik atera eta Larrabetzurako bidea hartuko dogu. Azken etxebizitza-blokea gainditzen dogunean, eskumatara dagoan lehenengo bide asfaltaua hartu beharko dogu, Larretxe baserrian. Bostehun eta berrogeta hamar metro egin ondoren, bidekurutze batekaz topauko gara, eta, han, ezkerretara doan bidea aukeratu beharko dogu. Errekatxu bat kurutzatuko dogu, eta bidea aldapatsu bihurtuko da. Hari jarraitu eta Txorierriko Korridorearen ganetik pasauko gara. Laster Olabarriaga baserrira ailegauko gara.

Bedarrezko bidea hartuko dogu orain, eta hesi batetik igaro beharko dogu. Bideak beherantz egingo dau, Legina errekeagaz topau arte. Beste hesi batetik pasau eta haresti txiki batean sartuko gara.

**Bedarra eta asfaltoa**

Erreka ertzetik jarraituko dogu, eta bideak gorantz egingo dau. Lehenengo bidekurutzean, ezkerreko bidea hartuko dogu, gorantz joateko. Aldats gogorrari egin beharko deutsagu aurre. Bidexka batzuk eta bide nagusi bat azalduko dira eskuman, baina guk gorantz jarraituko

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?
Etxebizitzetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak
Arazoei agur...
IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES
902 54 08 54
www.arlan.biz

*Txango erraza da, eta gitxi gorabehera ordubete eta 40 minutu emongo doguz bidean*

*Ibilpideak natura erakutsiko deusku, zugatzak, animaliak, baserriak, latsarri bat...*

dogu eta eskumatara dagoan beste bide nagusia hartuko dogu. Ibilpideko lekurik altuenean izango gara.

Bajatzen hasiko gara eta Amazelaietatik datorren errekatxoa zehartuko dogu; eta gero, beste txikiago bat. Ostera be apurtxo bat egingo dogu gorantz, ezkerrean dagozan bide bi albo batera itxita. Gaztainondoak, pagoak, haretxak eta urkiak eukiko doguz ikusgai. Eta beherantz egingo dogu beste behin be, Olabarriaga baserrira ailegau arte. Haretx batzuk eta hesi bat atzean itxi, eta porlanezko bide batera ailegauko gara.

Bide asfaltauak herrigunera eroango gaitu. Aldizkaritxuan azaltzen dan moduan, hasierako bidekurutzean ailegaten garanean, ezkerretara egiteko aukera dogu, eta Isuskitzagoikoa eta Isuskitzabekoa baserriak bisitau. Era berean, herrigunerako bidetik goazala hainbat baserri, antxinako latsarri bat, animaliak eta urkidi txiki bat ikusiko doguz, beste batzuen artean.



# LAGATZU EGUNA
# EUSKAL JAIA

LAGATZU
ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA

Zamudio Udala

Zamudioko talde eta herritarren ezinbesteko laguntza be euki dogu

## EKAINAREN 25EAN, ZAPATUA

11:00 KARTOI BANDA herriko ume eta gurasoentzat. (**Elizalde G.E.**)
EUSKAL PRODUKTUEN azoka erakusketa Leizaola plazan
(Baserriko produktuak, tresnak, txakolina, artisautza, euskal liburuak, diskak...)

12:00 HAMABIETAKOA Leizaola plazan, (**Lagunandre**)
IHOALDUNAK
TALO TAILERRA, **Aitor Aurrekoetxea**gaz

13:00 KALE-JIRA-BIRA-DANTZA-POTEOA
**Bertoko** eta **bertsolariak**
**Hiru bat** eta **Gazte Alai**

15:00 HERRI BAZKARIA, eskoletan. 15 € nagusien menua,
10 € umeen menua
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai, azken eguna ekainaren 20a, astelehena

17:00 TALDEKA KANTAN, **Taberna Ibiltaria**gaz, eskoletan
HERRI KIROLEN JOKUAK, Sointek taldeagaz, eskoletan

20:00 ERROMERIA, **Trikizio** taldeagaz eskoletan

Zamudion
# EUSKARAZ

Animatu eta parte hartu koadrilagaz
Jantzi zaitez antzinako euskal erropakaz
ETA EUSKARAZ GOZATU!!!

© kukuxumusu + bokart.com

# Limonerak

*t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar*

–**Hamen** Arratiako zekor bi.

–**Haori** egun onak emoteko modua Luki!

–Esaerea ez da, Arratiako zekorra txikerra baina gogorra?

–Bai, esan hori egiten da Luki.

–Zer dala-eta Txorierrin Angel Larrea eta Juantxu Rekalde?

–Hiztegia aurkezten gatoz Luki, 923 orrikoa, Arratia inguruko hiztegia.

–Zer berba barri dakarzue oraingoan?

–Limonerea, esate baterako.

–Limonerea, limoiak saltzen dituana?

–Bai, baina izaten zan, Bilbon gizonakaz ibilten zan andrea, eta zahar egiten zanean, orduan limoiak saltzea izaten zan haren lanbidea. Erriberako arkupeetan egoten ziran.



(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

–Eta Angel, gizonezkoari, andratan ibilten zanari, zelan esaten jakon?

–Platanerua izango zan, baina guk ez dogu batu berba hori.

–Txorierrin be badaukaguz berba jatorrak, zakila esateko **katxiñe** erabilten dogu.

–Baita Arratian be Luki! Izatez, katxina bola-jokoan txirlo txikia da, txirlo handien ilaratik aparte dagoana.

–Dana dala arratiarrok, ni lukia banaz, baina ez pornografoa. Gizonezkooi kritika eginez Txorik esaten euskun akeita hartzeko orduan: "Polena gizonok beharrezkoa dan arren, ez ahaztu alergiko asko dagoana".

–Txori aipatu dozun ezkero, non dabil?

–Boisen amerikanoen lumaz jantzirik.

–Idazten deutsazu Luki?

–Idatzi bai, baita berak erantzun be, baina beti berbak ondo neurtuta. Ez jako Txoriri eskapauko piroporik, ez eta Amurizari potorik.

–Lehengora etorrita Luki, onartu beharra daukagu, antxinako lanbide asko, ofizio ugari galzorian dagoana.

–Bai halan da bikote! Behinola baserrietara etorten ziran ijitoak, bidaztiak, eskekoak, kinkileroak, tela-saltzaileak- eta amaitu badira be, ez dot uste limonerak eta platanerak **akabeko** diranik.

aisia DERIO ★★★★
Tlf: 944 478330
www.aisiahoteles.com

Tlf: 944 540574
www.pandpderio.com

GOLF GASTRONOMIKOA eskaintza berezia:
relax zikuitua, menu berezia eta green fee bat, 9 zulotako golf-zelairako.
45€ pertsonako beza barne

# LEHIAKETA

**Bi lagunentzako tratamendua:**
**TXOKOLATEZKO ESTALDURA**

## Noren liburuak emango dira berriro argitara?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:
–Telefonoz: 94 452 34 47
–e-mailez: *aikortxori@aikor.com*

**Aurreko erantzuna:**
Irrifarrak sortuz, mugarik ez
**Irabazlea**:
Kepa Ganuza

# Bakailaoa bizkaitar erara

*Gastronomia vasca*

**Osagaiak (lau lagunentzat):**
–1 kg bakailao gazitu
–Pipermin erdia
–Litro erdi oliba-olio
–12 berakatz atal
–1 kg kipula
–8 piper txorizero
–2 azenario
–1 l saltsa-hondo zuri
–Irina

**Prestateko erea:**

Lehenik eta behin, prestatu bakailaoa pil-pil erara. Horretarako, konfitatu berakatzak oliba-oliotan su txikian. Gorritu ondoren, sutatik kendu eta gorde geroko. Olioa epeltzen denean, bota bakailaoa azala gora begira duela, eta utzi egiten su txikian. Guztiz egina egoteko gutxi falta zaionean, utzi bere horretan epeltzen. Astindu ontzia, normalean lurrezko kazola mugimendu birakari leunekin, olioa emultsionatu arte. Lana azkartzeko, kendu olioaren parte bat, eta gero bota berriro, saltsa emultsionatzen doan neurrian. Azkenik, apaindu pipermin-eraztunekin eta konfitatutako baratxuriekin.

Bakailaoa pil-pil erara eginda daukagunean, platerean jarri baino lehen, saltsa bizkaitarra gehituko diogu, eta horretarako tipula sueztituko dugu, kolorea hartu arte; errehidratatutako lukainka-piperrak bota aurretik, sueztitu pixka batez; loditu irin pixka batekin, eta zopatu 1,5 l fumetekin edo arrain saldarekin. Utzi irakiten minutu batzuetan. Bukatzeko, saltsa birrindu eta bahetu.

## Etxeko sukaldaritza

# Gaztai-flana

*Maite Lekerika, sukaldaria*

**Osagaiak (zortzi lagunentzat):**
–5 arrautza.
–Litro bat esne.
–10 gaztaitxu (Kesitoak).
–4 koilarakada azukre.
–3 koilarakada azukre, ur apur batekin karamelatua.

**Prestateko erea:**

Azukre karamelatua budinak egiteko molde batera botako dogu, eta ondo zabaldu. Molde txikiak edo flan-ontziak be erabili daikeguz. Osagai guztiak irabiau eta moldera botako dogu. Labara sartuko dogu 180 gradutan eta gitxi gorabehera 40 minutuan eukiko dogu Maria bainuan. Eginda dagoanean, labatik atera eta, gura izanez gero, mermeladagaz serbidu daikegu.

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia
Zamudion
Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es
cianoplan
GLOBAL PRINTERS
BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO
902 103 763
www.cianoplan.es

Ercoreca
supermerkatuak
Elikaduran adituak

## Gomendioak

**LITERATURA: NAGUSIAK**

–*Mende baten aldarriak, XX.ean jarriak* / Xabier Amuriza
–*Gerezi garaiko haikuak* / Josu Jimenez
–*Garabi suizidaren amodioak* / Jeremias Erro
–*Txakur ingelesak* / Lutxo Egia
–*Mea culpa* / Uxue Apaolaza

**HAUR ETA GAZTEENTZAT**

–*Matxitxi Marriau* / Begoña Durruty
–*Galtzagorriei to, Inaxito!* / Trikuharri taldea
–*Katu piraten galeoia?* / Geronimo Stilton
–*Erdia falta da* / Karlos Santisteban
–*Xarmak* / Aprilynne Pike

**MUSIKA**

–*Harritxu Maritxu* / Batzuk
–*Ibili handi* / Joselu anaiak
–*Egunero hasten da* / Basaki
–*Mukaki zpirit* / Xutik
–*Itxaropena* / Patxi Saiz

## Sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | |
| | | | 8 | 2 | 9 | | 1 | |
| | 7 | | | | | | 4 | |
| | 8 | | | 1 | | | 5 | 9 |
| | | | 6 | 9 | | 1 | | |
| 4 | | | | | | | | 2 |
| | | 8 | | 6 | | | 2 | |
| | 2 | | 1 | | | | | 7 |
| | | 9 | 4 | | | | 6 | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 9 | 8 | 2 | 5 | 4 | 6 | 3 | 7 |
| 7 | 6 | 4 | 3 | 8 | 1 | 9 | 2 | 5 |
| 3 | 2 | 5 | 7 | 6 | 9 | 8 | 4 | 1 |
| 2 | 8 | 6 | 5 | 7 | 3 | 1 | 9 | 4 |
| 4 | 7 | 1 | 8 | 9 | 6 | 3 | 5 | 2 |
| 9 | 5 | 3 | 4 | 1 | 2 | 7 | 8 | 6 |
| 6 | 4 | 9 | 1 | 3 | 5 | 2 | 7 | 8 |
| 5 | 1 | 7 | 9 | 2 | 8 | 4 | 6 | 3 |
| 8 | 3 | 2 | 6 | 4 | 7 | 5 | 1 | 9 |

## Erakusketak

### Derio

> Eskola-agenda 21. Ekainaren 13tik 20ra, Kultur Birikan.

### Zamudio

> *Chernobilen seme-alabak,* Jorge Lópezen eskutik. Ekainaren 14tik uztailaren 14ra, Zamudiotorren.

## Ikuskizunak

### Derio

> DoktorMagia. Ekainaren 3an, 20:30ean, Gurea Aretoan.
> Zineforuma: *Hamlet*. Ekainaren 8an, 18:30ean, Kultur Birikan. Literatura tailerrak antolatua.
> III. Antzerki topaketak. Ekainaren 10ean, 18:00etan, Gurea Aretoan. Kukuke antzerki taldeak antolatua.
> *Hala mintzatu zen Zappatrusta* antzezlana. Ekainaren 17an, 19:00etan, Gurea Aretoan. Tximintx euskara elkarteak antolatua.

## Irteerak

### Zamudio

> Granja de San Ildefonso eta Segovia. Ekainaren 4an, Lagunandre taldeak antolatua.
> Leire-Javier-Iruñea. Ekainaren 16an, Adintsuen taldeak antolatua.

### Lezama

> Portupekoleze. Ekainaren 5ean, Gailur mendi taldeak antolatua.
> Oma. Ekainaren 12an, Zorribike taldeak antolatua.
> Buciero. Ekainaren 26an, Gailur mendi taldeak antolatua.

## Jaiak

### Txorierri

> San Juan. Ekainaren 23an, 19:00etatik aurrera: dantzak, txitxi-burruntzia, txokolatada... Derio, Zamudio eta Lezaman.

### Larrabetzu

> San Antonio. Ekainaren 13an, Goikoelexalden.

## Kirola

### Txorierri

> Atea zabalik kirolari. Ekainaren 5ean, kiroldegietan. Derio eta Zamudion.

### Derio

> Taekwondo erakustaldia. Ekainaren 4an, 11:00etan, kiroldegian. Doyan gimnasioak antolatua.
> Orientazio-lasterketa, bizikletan. Ekainaren 11n, 11:00etan, frontoian. Kobi taldeak antolatua.
> Frontenis txapelketaren finalak. Ekainaren 12an, 10:00etan, frontoian. Atxiki pilota taldeak antolatua.
> III. Lur Slaloma. Ekainaren 18an, 10:00etan, futbol zelaian.

### Zamudio

> Plater-tiroko saioa. Ekainaren 17an, 10:00etatik aurrera, Parkeko tiro zelaian. Txorierri Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.

## Musika

### Derio

> Ikasturte amaierako kontzertua. Ekainaren 7an, 19:30ean, Gurea Aretoan. Musika eskolaren eskutik.
> Musika emanaldia. Ekainaren 14an, 19:30ean, Kultur Birikan. Musika eskolaren eskutik.

## Bestelakoak

### Loiu

> Udalekuetan izena ematea: ekainaren 8ra arte, udaletxean.

### Derio

> Jantzi Jarauntsi Troupe elkartearen aurkezpena. Ekainaren 4an, 12:30ean, Larrabarri baserrian.
> Udalekuetan izena ematea: ekainaren 20tik uztailaren 8ra, kiroldegian.
> Tokiko Agenda 21. Ekainaren 22an, 19:30ean, Larrabarri baserrian. DerioKOmunikazioak antolatua.

### Zamudio

> Bertoko taldearen urteurrena. Ekainaren 4an, 11:00etatik aurrera, Bidekoetxe parkean.
> Udalekuetan izena ematea: ekainaren 17ra arte, udaletxean.

### Lezama

> Emakumeentzako informatika ikastaroan izena ematea: ekainaren 16ra arte.
> Gazteentzako abentura-ekintzan (parapente) izena ematea: ekainaren 24ra arte.
> Uda programari buruzko bilera. Ekainaren 24an, 19:30ean, kultur aretoan.

ITP konpainia globala da, produktuaren bizitza-ziklo osoan zehar duen teknologia eta ingurumenarekiko begiruneagatik aerogintza eta industria motoreen merkatuan aitzindaria. ITPn kudeaketaren bikaintasunaren aldeko apostu sendoa egin dugu bai eta gure bezeroei begirako etengabeko lotura garatu ere, konpainiari eta interes-talde orori balioa emanez.

www.itp.es

ITP

talentuaren indarra

# bidera
zerbitzuak

# Irtenbide biribilak

Banaketa
Komunikazioa
Itzulpenak
Aholkularitza
Publizitatea
Dei zentroa

www.bidera.eu